

1989

ONDARRA 43 DICIEMBRE 1989.

1065

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGIA VASCA  
"JULIO DE URQUILLO"

International Journal of Basque Linguistics and Philology  
ASJU, XXIII-3, 1989

FRANTZISKO ONDARRA

Nafarroako Bertitzaranan aurkitutako euskal testuak

---

SEPARATA

---



DONOSTIA - SAN SEBASTIAN

E\_R\_R\_A\_T\_A

Orrialdea/

- 707, (4). ocharra.- Hurrengo orrialdean egon behar du.
- 712, (3). ocharra.- Hiru aldiz ageri da síñeztatuenac, baina bigarrenean sobera dago.
- 721, 4. paragr.- Bukaeran galdera marka dago, baina gurutzea egon behar du, honela: "mortala.†"
- 723, (21).- "exáminazeco" dio, baina "exâmina" da.
- 731.- Bertso-lerroak, lehenbizikoa ezik, zutabe ber-tikalaegiten dutela egon behar lirateke, Cal-variotaco Estacioac atalean.
- 738, 8. bertsoa, 6. bertso-lerroa.- Ez bezain", baizik "bezaifi".
- 744, (5).- Ez "256" eta "156", baizik "156" eta "256".
- 746, (1) eta (2).- Aurreko orrialdean egon behar dute.
- 749, Josefen atseguiñac, 4. bertsoa, 2. bertso-lerroa.- Ez da "zure", baizik "cer".
- 752, Entzun.- Ez "Entzun", baizik "Enzun".
- 734, 2. 1.- Ez "contet", baizik "content".
- 751, Arrazoi.- Ez "arrazoyozcora", bai "arrazoyezcora".



# Nafarroako Bertitzaranan aurkitutako euskal testuak

FRANTZISKO ONDARRA  
(EUSKALTZAINIA)

## ABSTRACT

*Several texts in the Basque language belonging to the first quarter of the nineteenth century are published here. They were found in Narbarte and Oierugi, villages situated in the High-Navarrese valley called Bertitzarana.*

*We offer a brief introduction, in which we describe the documents, give a short account of their contents and express our opinion with reference to their possible authors, places and dates of composition.*

*Doing so, we aim at a wider and better knowledge, both historical and geographical, of the Basque language.*

## SARRERA

Bertitzaranako Narbarte eta Oierugi herrietan aurkitutako eskuidatziak dira lan honetan ageri direnak. Horietako zenbait Narbarteko Sastrenea etxearen daude gorderik eta besteak Oierugiko parroquia etxearen. Gure lagun den Vidal Pérez de Villarrealen eman zigun Narbartekoena berri. Narbarteko eskuizkribuak, egia esan, Oieregitik<sup>1</sup> eramanak dira. Denak XIX. mendeko lehen laurdenekoak direla uste dugu.

Narbarte I, Narbarte II eta Oierugi izendatzeten ditugu lan honetan.

(1) Ez dugu dudarik egiten Juan Bautista de Oteiza-k eramanak izan zirela Narbarterako Oieregitik. Herri honetako parrokiko liburuaren "Coadjutor del Barrio de Zozaya" bezala ageri da lehenengo Bataiatuen liburu —cf. 2. liburu, 159at. orrialdea—, eta hori gertatzen da 1831. urteko abuztuaren 4ean. Lehenengoz "Rector Interino" Oierugin 1834. urteko abuztuaren 27.ean —cf. 2. liburu hori bera—. Erretore 1845.go martxoaren 1.goan —cf. Bataiatuen 3. lib.—, eta izenpetzen azkeneko 1872.go urtarrilaren 9.ean —cf. ibidem—, Oierugin hiltzen da 1873.go martxoaren 7.ean "Dñ Juan Bautista Oteiza", "Rector que fue de esta Parroquial", Narbarteko semea, 72 urtekin, eta Narbarten ehortzia da —cf. Hildakoena 3. lib., 45. or.—. Bere bizialdiaren hondarean itsu zegoen. Narbarte Sastrenea etxekoa zenez, hemen bizi zen parrokiatik erretiratu ondoren eta hemen gordetzen dira, argitara ematen ditugun eskuidatziekin batera, Oierugin beraren aurretek erretore izan zenaren zenbait liburu. Horietakoren batean idatzi zuen Etxelain-i erosia zela. Beraz, berak eramanak dira Sastrenea Oierugiko eskuidatziak.

## TESTUAK

### I. Narbarte I.

Liburu<sup>2</sup> bezala dago josia, eta larruzko estalkia du. Zenbaturik dauden 262 orrialdek osatzen dute, beren neurriak 145 mm. luze eta 90 zabal direla. Hitzaurrea ukitzen duten lau orrialde —43/46— erauzirik daude.

Ur markak hauek dira:

1. Hiru zirkulu bata bestearen gainean ezarriak eta goiko zirkuluaren gainean gurutze bat kokaturik.

2. Bi hizki haundi hauek: V B.

3. Hizki haundi hau bakarrik: B.

Edukiari dagokionez, hau daukagu:

1. *Leitubiarduenari Avisua* (1-34).

2. *Doctrina christiana explicationea* (34-184).

3. *Calvariotaco Estacioac* (185-219).

4. *Jesu Christo gure Jaunaren Pasio sandua* (219-230).

5. *Becatu mortalaren gaistoa, eta Graciaren ona* (230-236).

6. *Cer significazenduten Mezaco ceremonia sanduac* (237-259).

7. *Salvia* (260-262).

Hitz neutrutz daude 4 eta 5, hitz lauz eta hitz neutrutz dago 3. Besteak hitz lauz izan dira idatzia. Oieregi batajatu dugunean ere badaude 4 eta 5, zenbait aldaki txikirekin. Bestalde, 3. atalekoaren bertsoak eta Iberon<sup>3</sup> aurkitutakoak berdinak dira; baina bertsoak bakarrik, gainerako guztia desberdina delarik. 6. atalean ageri den *Manogito de Flores*<sup>4</sup> hori, euskal itzulpenaren erdarazko testua, 1776. urtekoa da. *Doctrina Asteterna* da, Menéndez de Luarcaren eraskinekin.

### II. Narbarte II.

Liburu bezala josia eta larruzko estalkiz hornitua dago. Gaia erlijioari buruzkoa da eta latinez ta gaztelaniaz dago gehiena, bederatzi orrialde bakarrik daudelarik euskaraz, idazkiak dituen 201 orrialde zenbatu eta 16 zenbaki gabekoren artean. Orrialdeak 140 bat mm. luze eta 90 bat zabal dira.

Ur markak *Narbarte I* deitu dugunean daudenak bezalakoak dira, baina ia denak zenbatu gabe dauden orrialdeetan ageri dira.

Edukiari gagozkiola, hauek ditugu:

1. *Acto Fedezcuac* (32-34)<sup>5</sup>.

2. *Acto Esperanzazuac* (34).

3. *Acto Caridadezcuac* (34-35).

4. *Obra onen ofrementua* (36-37).

5. *Preces pro quacumque tribulatione* (38-40).

### III. Oieregi.

Larruz hornitua dagoen codex batean aurkitzen da. Gaia erlijioari buruzkoa da eta latinez, gaztelaniaz eta euskaraz dago. Neurriak: 205 mm. luze eta 140 zabal dira orriak, eta bi alderdietatik daude zenbatuak. 248 orrialde dira guztira, azkeneko 19ak euskaraz daudelarik.

(2) Liburuaren izena hau da: *Doctrina christiana, eta berze asco gauz on Christavac salvazeco yaquin-biartuenac*.

(3) Cf. J. Arraiza Frauca, "Ibero, *Vía Crucis* en vascuence de comienzos del siglo XIX". *FLV*, XX, 51 (1988), 143-154.

(4) Jvan Nieto. *Manogito de flores, cuya fragancia (sic -gr-) descifra los misterios de la Misa, y oficio divino*, (etc.) compuesto por el P. Fr. - - - . En Madrid, En la Imprenta de Pedro Marin. Año 1776.

(5) Guk 1, 2, 3, etab. zenbatu ditugu orrialdeak.

Ur marka bat bakarra ageri da liburuan zehar eta hau da:

Bi zirkulu konzentrikoren artean esaten du "Ospital general de Pam" (ala Pama ote?); zirkulu horien artean, goiko aldean, koroa bat; zirkulu txikiaren barruan lehoi bat buztana zutik.

Ur marka hau ikusia dugu Goñerrin aurkitu izan ziren sermoietako batean ere, 1817 eta 1829 urteetan predikatua izan zen prediku batean<sup>6</sup>.

Edukia hau da:

1. *Jesu Christoren Pasio Sandua versoan* (355-363)<sup>7</sup>.
2. *Becatu mortalaren gaistoa! Eta Graciaren ona* (364-366).
3. *Gure Jaun Soberanoa Aldarian manifesto dagonian, cantatudaitzquen versoac* (266-369).
4. *Cristau Fiel gucia*<sup>8</sup> (369-370).
5. *Misionisten Cantuac* (370-371).
6. *Josefen atseguiñac*<sup>9</sup> (372-373).

Den-dena hitz neurtuz dago, eta 1 eta 2 ataletako testuak *Narbarte I* eskuidatzian ere badaude, goian esan dugun bezala.

## NOR, NON ETA NOIZ

### I. *Narbarte I*.

Nor da egilea? Ez dakigu. Guk ikusi eta erabili ditugun paperak bi idazlek egindako kopiak dira. Idazle zaharrenak hasierako 100 bat orrialde eta bukaerako beste hain-bestea aldatu ditu; besteak berriz, erdialdeko 50 bat orrialde. Hau ere gertatzen da *Narbarte II* deitzen dugunean ere: bi esku hor ere eta horiek *Narbarte I* kopiatu dutenak berak, esku gazteenak bi orrialde bakarrik egin dituela amaiera baino zerbaite lehenago.

Aldatzaile zaharra Miguel Francisco de Etulain da, Oierregiko erretore izana 1796 urtetik 1842 urteraino. Eguras-en c. 1765.ean jaioa, Imizkotzen abade egiten dute 1790-IV-22.ean, Anotz Ezkabarten 1790-x-3.ean eta Oieregin erretore 1796-II-17.ean. Kopiagi-le gaztearen izena ez dakigu, baina uste dugu horren eskua ageri dela Oierregiko parrokiako liburuetan 1819 eta 1820 urteetan<sup>10</sup>. Etulainen eskua ageri da baita ere beste eskuak aldatu dituen orrialdeetan, lerro artean hitzak sartzen, etab. Bera da lan hone-tan nagusia eta bestea, laguntzailea.

Itzultzale baten lanaren aurrean gaude, berak hitzaurrean dioenez. Entzun dezagu: "erdaraz arquizendire esribituac libru admirablia et abasto Christiandadiaren Erreligione Sandua zaiñ zaiñetic explicazendutenac", eta aipatzen ditu "San Gregorio de Nisac", "San Carlos Borromeoc", "Belarminoc" eta "Bosuet cerizón Doctore batec" konpondu zitzuten "Catecismoa(c) edo pregunta(c)", bukatzen duelarik: "eta berze aniz vtziric *orai uscarara izulinaidugun au explicazenbaitu zaiñ zañetic Christau batec yaquinbiarduen sustancia gucia*" (23-24. or.). Orain gure galdera: Hitz neurtuz daude-

(6) Cf. F. Ondarra, "Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan". *Euskera* XXVI (2. aldia) (1981)-1, 26, 349-365 (Ik. 353. or., 4. saila), Id. "Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena". *Euskera* XXVI (2. aldia) (1981)-2, 26, 633-649 (Ik. 645. or., 27. sermoioa).

(7) Guk 1, 2, 3, etab. zenbatu ditugu orrialdeak. Errakuntza bat dela medio, eskuidatzia 182. or.tik 283.era joaten da, baina testuak eskatzen du 183 ipintzea. Horregatik, euskal zatia 355.ean hasten da, baina 255 esan behar luke.

(8) Izenburu hau guk asmatua da.

(9) Izenburua guk asmatua da.

(10) Cf. "Difuntos / Adultos / Libros 1.<sup>a</sup> y 2.<sup>a</sup> / Oyeregui" (Liburu horiekin batean josirik dagoen 3. liburuaukitzten da). Ik. hor 1819. urteko abenduaren 6.a, 18. or. cf. ere "Bautizados / Libros 1.<sup>a</sup> y 2.<sup>a</sup> / Años 1566-1843 / Oyeregui", eta ik. hor 1820. urteko otsailaren 20.a, 141at./142. or.

nak ere itzuliak al dira? Ala *Doctrina christianaren explicacionea* itzuli ondoren erantsiak? Hitzurreko itzak estu hartzen baditugu, garbi dago itzuli nahi duena *Doctrina* dela.

Non egina da? Hau ere ez dakigu, baina non aldatua bai: Oieregin. Lehen esan dugunet, badakigu Etulain eta beste batek kopiatura dela. Zergatik egiten du itzultzaleak bere lana? Nafarroako euskaldunendako itzultzen du, euskaraz gutxi bait dago idatzirik eta dagoena ere bakarrik Probintziako edo Frantziako euskaraz. Irakur ditzagun beraren hitzak: “uscaraz quasic batere eztago escribituric; eta dagona ere choll edo Provinciaco, edo Franciaco uscaran quasic ain diferente baitire nola Frances, edo Erdara” (29-30).

Esan dezakegu Bertitzaranan erabiltzeko dagoela aldaturik “codex” hau. *Narbarte* II dakinaren eskuidatzia, behean esaten dugun bezala, Bertitzaranan erabiltzeko dago prestatua, eta *Narbarte* I eta *Narbarte* II Etulain eta beste batek aldatuak dira. Beraz, haran honetarako eta honetan kopiatuak izan dira.

Noiz egina da?<sup>11</sup> Noiz egina den ez dakigu, baina beharbada esan genezake 1819-1820 urteen inguruan izan dela aldatua, kontutan harturik kopiagile gaztearen eskua urte horietan agertzen dela, oker ez bagaude, Oieregiko parrokiako liburuetan.

### II. *Narbarte* II.

Nork egina ez dakigun arren, badakigu nork aldatua izan den euskal testu hau: Miguel Francisco de Etulainek, beraren idazkera edo eskua ageri delarik.

Bertitzaranan erabiltzeko izan ziren bilduak liburu honetako gaiak. Besteak beste, badago atal bat izen hau daramana: “Comemoraciones (sic) in Procesionib(u)s” (sic) eta latinez dagoena. Bertan aipatzen diren prozesioak honako hauek dira: Abuztuko Andra Marirena, San Juan Bautista, San Andres, Santa Katalina eta Santa Leokadiarenak. Beraz, hasi Bertitz Jaurerritik eta Oieregi, *Narbarte* eta Legasan barrena herri honetako baseliza den Santa Leokadiaraino.

Pentsa dezakegu *Narbarte* I aldatu zuten garaikoa dela *Narbarte* II ere.

### III. *Oieregi*.

*Narbarte* I-en bezala, hemen ere bi kopiagile ditugu; baina ezin dugu esan haien berak direnik. Beharbada beste bi dira. Esku zaharrenak, baliteke Etulain izatea, 3, 5 eta 6 atalak aldatu ditu; beste eskuak, 1, 2 eta 4 atalak.

Non erabiltzeko? Oieregin erabiltzeko, pentsatzen dugu.

Noiz aldatuak? Goian esan dugun bezala, xix. mendeko lehen laurdenean. Aldaitzaile zaharrak xviii. mendean egiten zen *r* egiten du beti; besteak berri, behin bakarrik idazten *r* mota hori 1 eta 2. ataletan, eta xix. mendean erabiltzen den *r* motarekin nahasten du 4. atalean.

## GRAFIA ETA FONETIKA

Testuak noiz, non eta zein euskalkitan etab. izan diren idatziak jakiteko aproposenak direla uste ditugun zerak plazaratzen ditugu.

### Grafia

*v/u-*. *Narbarte* I-en gehien-gehienetan *v*- idazten da hitz hasieran *u*-ren partez: “utsic” 5, 2; baina “utsic” 29, 2. *Narbarte* II-n ez dago adibiderik, eta *Oieregi*-n beti *v*- ageri da: “urzen” 14, 1.

*i/-y-*. Ia beti *-y-* idazten da bokal artean, bi salbuespen bakarrik aurkitzen ditugula eta horiek *Narbarte* I-en: “Ya ieco” 28 eta “gueienetara” 30, 2.

(11) Goian, 4. oharpenean, ipini dugun liburua kontutan hartzen dugula, esan behar dugu 1776. urtea baino lehenago ez dela izan egina.

*cb/c.* Beti "Christo", "Christau" etab.; baina bi aldiz "Jesu-Cristo" *Narbarte* i-en 138, 1; 150, 6. Eta behin "Christoc" 19, 3 eta beste behin "Cristau" 15, Oieregi-n.

*qu/cu.* Hiru aldiz aurkitu dugu *Narbarte* i-en "qu" grafia "cu"ren ordez: "quasic" 29, 2; 174-6; "lembiciqua" 37, 4.

*t/tt.* Noizean behin *tt* bikoitza ikusten da *Narbarte* i-en, bertan kopiagile zaharrak aldatu dituen orrialdeetan. Oieregi-n ere aurkitzen da. Hori gertatzen da bakarrik *i* bokalea daukanean ezkerretik: "gaittu" 87, 7, edo *tu* 'ditu' bezalakoetan: "eztuenac" 88, 3.

*ts/tz.* Badakite denek digrama horiek erabiltzen.

Azento marka. *Narbarte* i-eko kopiatzaile gazteak bost bat aldiz erabiltzen du azentu marka: "-diō" 108, 2; "exāmiña" 127, 4; etab.

Dieresia marka. Aurreko paragrafuan aipatu dugun kopiatzaile berak hamabi bat aldiz dieresia marka bezalakoa ipintzen du *i* bokalaren gainean: "modurīc" 122, 3; "guīzonquā" 122, 3; etab.

Marratxo. Bost bat aldiz *Narbarte* i-eko esku zaharrak gioi edo marratxo baten bidez adierazten du bi silaba egin behar direla: "Itzi-equin" 225, 2; baina "itziéquin" 225, 3. Hori, jakina, hitz neurtuzko ataletan gertatzen da.

#### Fonetika

*au/-ava.* Deklinabideko atzizkia erastean, *au* diptongoa *-ava* egiten da: "Christava" 53, 6; "gavaz" 11, 2 *Narbarte* i eta II-n, ez delarik inolako adibiderik aurkitzen Oieregi-n.

Hiatoa. Gehienetan deusezstatzen de *e+a* aurkitzen direnean; baina gehienetan mantentzen da *o+a* bokalekin *Narbarte* i-en: "leizia" 1, 2; "oficiotacuac" 21, baina "misericordiazcoac" 44, 4. Hori bera ikusten da beste testuetan ere.

Bokal armonia. Noizean behin gertatzen da *Narbarte* i-en: "guciec" 7; "Eliceo" 44, 5; "aliqueco" 138, 5. hori bera Oieregi-n: "Elcerá" 1, izenburua.

*ez+j-*. *Narbarte* i-en ageri da "Ezcauna" 46, 6, baina "Ez jauna" hurrengo orrialdean: 47, 1.

## MORFOLOGIA

Deklinabideko zenbait gauza lehenbizi.

Destinatiboa. *Narbarte* i-en *-endako* da, behin bakarrik aurkitzen dugularik *-entzat* eta hori hitz neurtutan: "Apecendaco" 2, 1; "hoquendaco" 27; "animarentzat" 231, 1. Beste testuetan ez da ageri kasu hau.

Ergatibo plurala. Testu guztietan eta beti *-ak* da: "Necazariac" *Narbarte* I, 2, 1; "becatuac" *Narbarte* II, 8, 2; "Aingueruac" Oieregi, 2, 4.

Soziatiboa. Ageri den guztietan *-kin* da: "podoriarequin" 53, 3 *Narbarte* i-en; "aran-tzequin" Oieregi 3, 3.

Erakusleetan zerbaite.

Ergatibo singularea. Ageri den guztietan *arc* da *Narbarte* i-en: *arc* 8, 2, *Narbarte* II-en ez dela ageri. Oieregi-n *arec* aurkitu dugu, baina hitz neurtuzkotan: *arec* 2, 3.

Inesiboa. *Narbarte* i-en *ontan* (eta *ontatic*, *ontara*, etab.) eta *ortan*, ez "onetan" eta "orretan", erabiltzen dira: *ontan* 17, 1; *ortan* 32, 2. *Narbarte* II-n *ontan* 4, 2 ageri da eta Oieregi-n "orretan", baina hitz neurtutan: "orretan" 14, 5.

Genitiboa. *Narbarte* I-n, beste testuetan adibide gutxi ageri dira ezer esateko, *aren*, *bere* eta *beren* ditugu. Gehienetan *aren* 'eius' da: 54, 2; 65, 9; etab.; noizean behin 'suus' delarik: 55, 2; 86, 3; etab. Ia beti *bere* 'suus' da: 78, 4; etab.; salbuespen bezala behin aurkitu dugularik 'eius' adierazteko: 67, 2. Azkenik, *beren* 'eorum' da: 22; etab.

Aditzaren arloan, geroaldia tajutzeko *-en* ageri da testu guzietan: *Narbarte* II-n “emanen” 2, 1; *Oieregi-n* “erranen” 18, 4; *Narbarte* I-en “izanen” 172, 1; etab.; baina behin bakarrik “izain” 172, 4.

## LEXIKOA

Testuak zein euskalkitan dauden ezagutzeko esanguratsu izan litezkeen zenbait hitz hautatzen ditugu.

*Narbarte* I-en ikusten ditugu *agitz* 98, 3; *aizin* 28; *andi* 143, 1; *anitz* 156, 1 eta *asko* (bakan-bakan) 30, 1; *atze* 193, 3; *azken* 69, 5 eta *ondar* 254, 1; *bedikatu* 145 eta *bedeikatu* 262; *bedizio* 156, 1; *biarri* 161, 3; *bida* 60, 3; *bigali* 119, 2; *deus* 101, 3; *erauki*: “Iñori falso testimonioric *erauqui eztezogula*” 102, 5; *erautsi* 211, 3; *ezkondu* 159, 3; *gibel ‘atze’* 252, 2; *guaze* 208, 1; *guti* 22; *guzi* 22; *yayo ‘jaio’* 250, 1; *teusi* ‘descendere’ 66, 2; *itsaso* 210; *yuan ‘joan’* 246; *korroto* 98, 1; *landara ‘gainera’* 73, 2; *orai* 24, 1; *sandu* 69, 1; *txiki* 91, 3; *ugalde* 257, 1; *uskara* 24; *zulo* 225, 2.

*Narbarte* II-n: *andi* 7, 2; *bedikatu* 9, 3; *guzi* 5, 1; *yayo ‘jaio’* 1, 2; *landara ‘gainera’* 5, 3; *sandu* 4, 1; *txiki* 7, 2.

*Oieregi-n*: *andi* 15, 2; *aurre* 17, 10; *aiuts ‘cinis’* 13, 6; *bedeikatu* 18, 3; *bigaldu* 17, 1 (galdu-rekin parekatzen); *guzi* 15, 3 eta *guzti* 17, 4; *yayo ‘jaio’* 18, 3; *yuan ‘joan’* 16, izenburu; *orai* 17, 5; *sandu* 14, 5.

## SINTAXIA

Erlatibozkoak. Hiru testuetan *-n* atzizkia ageri da gehien, eta *Oieregi-n* hori bakarrik aurkitu dugu. *Narbarte* I-en ikusi dugu soilik *zeiñ/zeiñ -n/zeiñ bait*: “*ceiñ gaude obligaturic*” 72, 5; “*ceiñ dagon obligaturic*” 36; “*ceiñ baita Eliza*” 72, 1. *Narbarte* I eta II-n *bait* ikusten da: “Bigarrena (Persona), *baita Semia*” 56, 2 *Narbarte* I-n; eta *Narbarte* II-n: “bigarren Persona Divinoa, *baita Semia*” 1, 2.

Akusatibo/Genitiboa. Noizean behin, bakan-bakan, erabiltzen da genitiboa *Narbarte* I-n: “hequen sendazeco” 4, 2; “*on en*, eta gaistoen yuzgazera” 69, 7. Beste bi testuetan behin bakarrik aurkitu dugu bakoitzean: *Narbarte* II-n “*onen, eta gaistoen yuzgazera*” 2, 1; eta *Oieregi-n* “bere ardiene deizera” 17, 1; baina “Baqiac escazera” 17, 1, bertsot horretan bertan.

X-ekin Y. Egitura<sup>12</sup> hau behin aurkitu dugu *Narbarte* I-n: “Purgatorioco Animen favoretan Pater nosterrequin Ave Maria” 219, 2.

## GURE LANA

*Narbarte* II eta *Oieregi*-ko testuetan orrialdeek daramaten zenbakia guk ezarria da. Hitz hasieran Y grafemak —y greko haundiak, nahi dugu esan— Y eta I adierazten diuelarik, guk Y transkribatu dugu bokal aurretik dagoenean: “*Yayeco*” *Narbarte* I, 89, 3; baina I, kontsonante baten aurrean badago: “*Idoloac*” *Narbarte* I, 88, 3. *Narbarte* II eta *Oieregi-n* ere hori bera egiten dugu. Hitz hasieran V grafemak V eta U adierazten diuelarik, guk V eta U transkribatzen dugu: “*Virgiña*” 84, 4 eta “*Ura* ‘illa’” 84, 9. Berdin *Narbarte* II eta *Oieregi-n*.

*Narbarte* I eta *Oieregi-n* bi testu —*Jesu Christo gure Jaunaren Pasio sandua* eta *Becatu mortalaren gaistoa, eta Graciaren ona*— errepikaturik daudelarik, guk *Narbarte* I-ekoia hartzen dugu oinarritzat eta bestea ez dugu ematen. Baina orrialde beheko oharretan ipintzen ditugu *Oieregi-n* aurkitzen diren aldaerak. Ez ordea den-denak,

(12) Egitura honi buruz ik. J. A. Lakarra. “Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean”, *ASJU*, XX-3 (1986), 639-681 (Ik. 648. or.). Orobak J. A. Mujikak Mitxelenaren Omenaldirako prestatu lanean eskaini atala.

baizik eta fonetika eta morfologiarekin zer ikustekorik dutenak, eta baita ere hitzak loturik edo hautsirik daudela batean eta ez bestean, marratxo bat dagoela edo ez dagoe-la bigarrenean eta ez lehenbizikoan, eta holakoak. Ez ditugu kontutan hartzten maius-kula/minuskulak, batak *c* erabiltzen duela eta besteak *z*, edo alderantziz; ez eta ere puntuazio markak.

Erasten dugu *Doctrina christiana explicationea*-tik atera dugun hiztegi bat, eta horrekin batera atal horretako adizki guztiak ere ipintzen ditugu. Egiten dugu hau, al-de batetik, atal hori delako *Narbarte* i-eko muina, egileak hitzaurrean esaten duenez: "Doctrina christiana, *eta berze asco gauz on*"; eta bestetik, erkatu ahal izateko beste doktrinekin, argitaratuak dauden eta argitaratzeko daudenekin.

Bukatzeko, eskerrak eman behar ditugu. Gure esker ona Narbarteko testuen berri eman zigun gure lagun Vidal Pérez de Villarreal-i; gure esker ona, baita ere, On Juan Izeta-ri, Oierregiko paperak erakutsi zizkigulako eta Parroquia artxibuko ateak zabaldutu; azkenik, eta batez ere, gure esker ona Narbarte Sastrenako Eulalia, Natividad eta Elena Oteiza Oteiza ahizpei beren osaba Juan Bautista de Oteiza, Oierregiko parroku izan zenaren liburuak horren maitekiro gordetzen dituztelako eta guk lan hau egin ahal ge-nezan utzi zizkigutelako.

## LABURDURAK

a.=aditza, ad.=adberbioa, adj.=adjetiboa, at.=atzetik, d.=determinatzalea, i.=izena, ik.=ikus, io.=ize-nordaina, j.=juntagailua, p.=posposizioa.

### I. NARBARTE I

†  
Doctrina christiana,  
eta berze asco gauz on Christavac salvazeco  
yaquinbiartuenac.  
Leitubiarduenari  
*Avisua*<sup>1</sup>

Idurizayote<sup>2</sup> yendei libruac leizia [2] eta<sup>3</sup> etan estudiazia, solamente Apecendaco eta Frailendaco eguiña dela. Necazariac eta berze gañeraco yendiac, escola andiric eztutenc asquidutela, Doctrina baldinbadaquite, Garizuman pasazeco diña.

Por cierto, cein equivocaturic vicidiren. Bada ala nola Mercatari batec procurazendu icastia, enterazia, [3] eta diestro yarzia bere negocioetan eta tratoetan ibillibiartuen erregetlan eta videtan; berzenaz ezlizeque Mercatari habilla izanen.

Ala nola Abogadotaco pretendizenduenac estudiazentu cuidadoarequin, eta icastentu Leguiac, eta Leguien Drechoac, berzenaz ezlizeque Abogado, edo Juez habilla [4] izanen. Ala nola Soldado onac procurazendu icastia exercioa, eta armetan diestro yarzia.

En fin ala nola Medicu habilla naiduenac izan estudiazentu eta icastentu Medicinac ematentuen Erreglac, gure gorpuzac pasadetzaquen eritasunac, hequen sendazeco cebait belar generoac tuzten propiedadiac, virtutiac, eta erremedioac; ala nola gauz

(1) Eskuidatzian azpimarratua dago *Avisua* hitza.

(2) Hitz hasieran beti *Y* idazten du, bai *I* eta bai *Y* dierazteko; beraz, *i* latinoa eta *y* grekoa berdin ageri dira hizki haundietan.

(3) Testuaren gainetiko bazterrean hau irakurtzen dugu: "*Leitu biarduenari Avisua*" (azpimarraturik). Li-burua zabaldurik daukagula,urrean ditugun bi orrialdeetan banatzen da esaldi hori, titulu edo gaiaren laburpen bezala. Horixe egiten da azkeneko orrialderaino.

(4) Lehenbizi "hequen" ipini zuen.

otan gucietan [5] procurazendu diestro yarzia, berzenaz ezluque gauza zucenic eguiñen.

Guisartan berian Christau ona eta habilla izateco, ceruco vidian vtsic ez eguiteco, biartu Christavac icasi iñalian Christiandadiaren Leguiac eta erreglac; biardu hetan estudiati, eta diestro yarri iñalian. Biardu icasi cer den Christau izatia nondic elduden [6] Christau izatia, cein diren Christaven Leguiac, cer premioac eta paguac aguinzentutzten cumplizentuztenendaco, eta cer castigoac, eta penac dauden paratuac hequin<sup>4</sup> cumplizeneztuztenendaco.

Hotan gucietan, eta berze asco gauzeta, guero erranenden bezala, yarribiardo Christava naiduenac izan, diestro iñalian, salvazecotan. Berzenaz izanenda Christava solamente nombrian.

[7] Comparacione, gaudie Christavac obligatuac gure Jaungoicoa maitazera gauza guieciec baño gueyago; gaudie obligatuac siñestazera yendey errevelatution eguiac, eta gaudie obligatuac esperazera emanendigula Ceruco Gloria. Bada nola maitatucodugu, ezpaldinbadaquigu nor den gure Jaungoicoa, ezpaldinbadugu [8] ezaguzen, ezpaldinbadaquigu ceiñ ona den, ceiñ ederra, ceiñ sandua, eta ceiñ amablia den, alde gucietara beguiraturic?

Nola siñetsicotugu arc errevelatutuen eguiac, arc obratutuen obra milagrosoac gure onetan, ezpaldinbadaquigu ceiñ diren egui oriec, eta obra andi oriec? Nola servizatu codugu gure Jaungoico [9] au, eta cer confianzarequin esperatucodugu aren baitan pagatucodigula ari eguitendiogun servizua, ematendigularic Ceruco Gloria; ezpaldinbadaquigu cer den Ceruco Gloria, eta cer ondasunac dauzquieran an prestatuac guretaco?

Bada gauz oriec guieciec eta berze anitz eracustendire [10] Escritura Sagratuan, eta Doctore Sanduac esribitutuzten Librutan. Orren medioz bada eztugu menospreciatu biar libru onac. Particularqui Escritura Sagratua, Sanduen viciac, eta Doctore Sanduac esribitutuzten libru admirabliac guri Christiandadiaren Erreligione sandua eracusteco, eta explicatzeko. Baicic lenago, estimatubiartugu gure ondasunic [11] oberenaac<sup>5</sup>, eta valiosoenac bezala.

Onen provaraco, Santo Tomasec erratenzuen: gueyago estimazencituela S. Juan Chrisostomoren libru bazuec, ecen eguinbalezate Parisko yabe. Bada denac necatudire, eta trabajatudire gavaz, eta egunaz guri Ceruco vidia eracustiagatic.

Cenbat gauz eder [12] ta admirabliac eztaude esribituac San Pablo gloriosoaren Cartetan; Cantazenbaititu Elizac Meza sanduan? Cenbat eztaude San Pedro esribituciuetanetan? Cenbat gauz admirabliac eta exelentiac ezituen esribitu Santo Tomasec? Cenbat ezituen egui San Agustiñec? Een<sup>6</sup> fin cenbat ezituzten esribitu S. Gregorioc, S. Geronimoc, S. Carlos [17] artugu<sup>7</sup> Libru onac, particularqui guri Salvacioco vidia eracustendigutenac, eta declarazendigutenac, ori baita mundu ontan dugun gaucic biarren biarrena, negocioric principalen<sup>8</sup> principa-lena. Bada gueren animaren salvacioa lograzenbadugu, badugu biardugun guicia; baña ori galzenbadugu denac galduzugula eguiñezaquegu contu.

Bada mundu [18] gúcico vrriaren yabe mundu gúcico cillarraren yabe, mundu gúcico perlla eta diamante gucién yabe, eta enfin mundu gúcico ondasun gucién yaun ta yabe eguitenbaguiñeque ere, munduan diren pobrelic miserablenac guíñequeela eguiñeguenzaque contu, animaren salvacioa galzecotan. Ori arrazoyac berac ematendu eta artaz landara Ceruco [19] Juez Soberanoac declaraturic dauca erranzuenian modu ontan: Cer provechu izanendu guizonac mundu gucia beretaco irabaztenbaldinbadu, ondarrian bere anima galzenbadu?

(5) Hitzaren bukaerako *-tu* ahaztu egin zaio, baino zazpi lerro beheitiago “esribitu” ikusten dugu.

(6) Hola dago: “-aac”.

(7) Hola dio: “Een fin”.

(8) Lau orrialde falta dira hemen, norbaitek bi orri eskuz erauzi dituelarik.

(9) Lehenbizi “principalena” idatzi du, eta gero “principalen”.

Ori dugu bada dioden bezala eguitecoric precisoen precisoena, gueren animaren salvacioa irabaztia. Orren medioz bada, ez solamente [20] eztugu menospreciatu-biar libru admirabliac; ori eracustendigutenac, errandudan bezala bai eta ere billatubiartugu leitubiartugu, estudiatiubiartugu, eta icasibiertugu, hetan eracustenzaizquigun eguiac, gauz admirabliac, eta ematenzaizquigun vide onac.

Eta ontatic eztago libre iñor ere Christava izan ezquiero: ez [21] solamente Apezac, Frailiac, Monjac eta escola ona dutenac daude obligatuac ontara, bay eta berze gañeraco Christau genero guciec ere, edoceiñ oficiotacuac, edo estadotacuac izandaitecen, aberatsac pobriac, Nausi Echeco Andriac, hequen humiac, semiac, alabac, hequen niriabiac, mutillac, nescatuac, arzayac, ycazquiñac, yornaleroac sastriac mandazayac, zapatilliac, [22] arozac, zurguiñac, arguiñac necazariac, eta berze edoceiñ oficio edo estadio dutenac; denac denac daude obligatuac estudiazera iñalian Christiandadeco gauzac; egui da ez guciec berdiiñ, baicic batzuec gueyago, berze bazuec gutiago, nolaco obligacioac, eta carguac tuzten; baña denac, beren posiblidadidaren conforme Jaungoicoac emandioten talentuen conforme daude obligatuac [23] icastera Christau on baten obligacioac. Denac, denac, diot berriz ere bai eta batere escolaric eztuteneac ere.

Beñipein erdara pasagarriqui daquitenac, eta escola medianoa dutenac eztute escusaric; cergatic hoc badute icasteko conveniencia franco. Bada erdaraz arquizendire esribituac libru admirabliac eta abasto Christiandadiaren Erreligione Sandua zaiñ [24] zañetic explicazendutenac. Nola diren, San Gregorio de Nisac componduzuen Catecismoa edo pregunta; San Carlos Borromeoc componduzuen; Belarminoc componduzuen; Bosuet cerizón Doctore batec componduzuen; eta berze aniz vtziric orai vscarara izulinaidugun au explicazenbaitu zaiñ zañetic Christau batec yaquinbiarduen sustancia gucia.

[25] Erdara pasagarriqui daquitenac bada; escola medianoa dutenac, eta conveniencia cerbatequin vicidirenac erosibezañ libru admirabile (sic *-bi-*) otatic bat siquiera; estimabezañ ichian duten prendaric edo halajaric oberena bezaiñ ongi, edo obequiao: leibezate cuidado andiarequin, eta atencio andiarequin espacio andiarequin eta gusto andiarequin ez solamente beiñ, baicic bi aldiz, iru aldiz eta eun [26] aldiz. Eta ez solamente beren buruendako leitubiardute, baita beren echeco, familiendako ere, endemás nausi echeco Andriac baldinbadire, denac icasidetzaten bacochari tocenzaizquion obligacioac.

Persona genero hoc beñicpeñ eztute escusaric, dioden bezala, ez icasteko exemplo admirabliac, sanduac eta santac eguiñitzetan penitenciac, milagroac eta berze gañeraco obra andiac; bada ala dute [27] conveniencia. Solamente izandezaquete escusa cerbait uscaldunac, eta escolaric eztuteneac; cergatic uscaraz beñicpeñ gauz on guti dago esribituric, eta daudenac ere ez aguiz lenguage garbian. Baña hoquendako ere boda erremedioa; bada erdara pasagarriqui daquitenac beñicpeñ icasidetzaque te anitz-gauza, endemás Nausi, Echeco Andriac baldinbadire, batian yuatendirelaric predicu onac aditzera baitire maiz eta abasto [28] particularqui Ciudadetan eta Errí andietan: Berzian, baldinbadute, edo iñondic ere lograto albadezaquete libru onic, manazendiotelarican escola duenbati, edo beren Niraberent bati, edo beren humeren bati, ardezala alaco librua, eta leidezala espacioarequin eta cuidadoarequin familia gucien aiziñian: eta ori eguiñezaque te anitz aldiz dembora charretan, eta Yaieco egunetan [29].

Eta utsic ez eguiteco, oberena izanenda galdezia Confesoriari edo Errico Parrocoari, elegidezan libruric oberena eta seguruena. Ontan solamente uscaldunac izandezaquete cerbait escusa; cergatic, errandudan bezala, uscaraz quasic batere eztago esribituric; eta dagona ere choll edo Provinciaco, edo Franciaco uscaran quasic aiñ diferente baitire [30] nola Frances, edo Erdara. Baña cer eguiñenda? Hoc ere izandetzaque te icasteko asco arbitrio (sic *-britti-*).

Beiñipeiñ beren Errico Parrocoac eguitenbattu Predicu onac eta maiz obligatua dagon bezala, estimaberezate duten fortuna, eta Jaungoicoac eguitendioten mesedzia eta favoria; eztezatela ocasioric galdu; acudibezate gucietara, edo gueienetara, iñolatere albadezaquete. Baña beren [31] desgraciaz, Errian berian ezpaldinbadute icasteko conveniencia andiric, informabeitez, galdebezate noñdiren Predicari onac eta habillac, eta sustanciarequin gauza explicazendutenac; eta viduaz siquiera cebait aldiz hequen instrucioniac aditzera; orrekiñ icasicotuzte anitz gauza. Enfin, iñala eguitenbaldinbadute dezaquetena, icasteko Jaungoicoac barcatucodiote berze [32] gauñeraco<sup>10</sup> gucia.

Iduri baldinbazayote, lan andia dela ori, eta neque gogorra, pensaberezate ongui, eta consideraberezate cer irabazteria duacin ori ongui eguitiaz; eta cer galzera duacin ortan cuidadoa ez paraziaz. Bada ori ongui eguitiaz irabacicodute beren animaren salvacioa; baita mundu ontan persona batec irabacidezaquen ondasunic andiena. Batec logradezaquen [33] fortunick andiena. Alcanzadezaquen gradoric andiena.

Ortan cuidadoa paraziaz allegatubiardu batec Jaungoicoa bera icustera, eta gozazerra. Logratubiaru egun ta seculaco ceruco Palacio eder hetan ondasun valiosoac, gustoac, eta placer andiac. Eta ortaz casoric ez eguitiaz berriz, eztu berzeric logratuko baicic dichia oriec, Gloriac eta ondasun oriec galduric [34] betico, betico nigarrac, misericac, desdichac, penac, eta tormentu espantagarriac. Icusibea, bada, icusi bacochac cer convenizayon. Considerabeza ongui dembora dela.

### **Doctriña christianaren explicacionea.**

[35] Galde eguitendut. Christava zara?

Erresp. Bay Jauna Jaungoicoaren graciarequin.

G. Cer erranaidu christavac?

E. Christoren Guizona.

G. Cer entendizenduzu Christoren guizonagatic?

E. Christoren Fedia duen guizona, ceiñ profesatubaizuen Bautismo [36] Sanduan, eta ceiñ dagon obligaturic aren servizu sandura.

G. Ceinda Christavaren señalea?

E. Guruze sandua.

G. Cergatic?

E. Cergatic den christo crucificatuaren figura, ceñetan erredimituguenuen.

G. Cenbat modutara da Señale ori?

E. Bi modutara.

[37] G. Cein dire?

E. Ciñazea, eta santiguazea.

(G.). Cer gauza da ciñazea?

E. Escuñeco escudo biaz audiarequin iru Guruze osoric eguitea, lembiciqua copetan bigarrena aguan; irugarrena bularretan, minzazengarelaric Jaungoico gure Jaunarequin.

G. Cergatic ciñazenzara copetan?

E. Jaungoicoac libragaitzan [38] pensamentu gaisto gucietatic.

G. Cergatic aguan?

E. Jaungoicoac libragaizan iz gaisto gucietatic.

G. Cergatic bularretan?

E. Jaungoicoac libragaizan obra, ta deseio gaisto gucietatic.

(10) Hola dago: "gauñeraco".

(1) *Errespondizent dut* izan daiteke.

- G. Cer gauza da santiguazea?
- [39] E. Escuñeco bi biazez Guruze oso bat eguitea, copetatic bularretaraño, ezquerreco soñetic escuñecorao deizendugularic Trintate Jaun Poderosa.
- G. Noiz eguinbiardugu Guruze ori?
- E. Edoceiñ tentacio, eta peligrotan, obra onenbat asteracuan, especialqui guazera ezitian, [40] guazetic yaiquizian, echetic, aterazian, Elizan sarzian, yatian, ta edatian, eta berze gañeraco obra on gucietan.
- G. Cergatic amberze aldiz?
- E. Cergatic dembora gucietan, eta lecu gucietan gueren etsayac perseguizungaitzen.
- G. Cer etsay dire oyec?
- E. Mundua Demonioa, [41] eta Araguia.
- G. Eta Guruzeac, badu virtuteric oyen contra?
- E. Bay Jauna.
- G. Nondic du Guruzeac virtuteori?
- E. Cergatic artan venzituzituen Christoc bere eriozearequin.
- G. Guruzea adorazenduzunian, nola erratenduzu?
- E. Adorazen, eta bedeicazenzaitut Christo cergatic [42] cere guruziaren medioz erre-dimitucenuen mundua.
- G. Christavac usu arrazoyezcora allegaturezquero, cenbat gauza yaquin biartu?
- E. Lau Yauna.
- G. Ceindire?
- E. Lembicicua yaquitia cer siñesi biardugun. Bigarrena yaquitia cer escatubiardugun. [43] Irugarren<sup>2</sup> Yaquitia cer obratubiarduen. Laugarrena Yaquitia cer erreccibitubiarduen.
- G. Nola yaquiñendugu cer siñesibiardugun?
- E. Daquizquigularic Credo edo Articulo Fedezcuac.
- G. Nola yaquiñendugu cer escatubiardugun?
- E. Daquizquigularic Paternoster, [44] ta Ave Maria, eta berze gañeraco oracioac.
- G. Nola yaquiñendugu cer biardugun obratu?
- E. Daquizquigularic Jaungoicoaren Leguezco amar Mandamentu Sanduac, Eliceço vorzac, eta Obra misericordiozcoac.
- G. Nola yaquiñendugu cer biardugun erreccibitu?
- E. Daquizquigularic Eliceço [45] zazpi Sacramentu Sanduac.

### **Explicazendire Fedeco gauzac.**

- G. Norc erranzuen Credo?
- E. Amavi Apostoluac.
- G. Certaco?
- E. Guri Fedia eracusteco.
- [46] G. Eta guc certaco erratendugu?
- E. Christavac dugun Fedia confesazeco.
- G. Cer gauza da Fedia?
- E. Icusigaveco gauza siñestazia.
- G. Icusi cenuen Jesus jayocen?
- E. Ezcauna.
- G. Ilzen edo Ceruetara ygaten?
- [47] E. Ez Jauna.

(2) Irugarrena eta Yaquitia hitzen hasierako hizkia berdin-berdin dago idatzia. cf. *Leitubiarduenari Avi-sua* izeneko atalean ipini dugun 2. oharpena.

- G. Siñestazenduzu?
- E. Bay Jauna.
- G. Cergatic?
- E. Cergatic Jaungoicoac ala errevelatucion Eliz Ama Sanduari, eta Elizama Sanduac guri ala eracustenbaitigu.
- G. Cer gauza dire Christavac bezala dauzquizunac, eta siñestazentuenac?<sup>3</sup>
- (E.). Dauzquienac, eta siñestazentuenac Elizama Sandu catolicoac.
- [48] G. Cer gauza dire oyec?
- E. Articulo Fedezcuac principalqui Credoan dauden bezala.
- G. Cer gauza dire Articulo Fedezcoac?
- E. Dire fediaren misterio principalenac.
- G. Certaco dire Articulo Fedezcuac?
- E. Emateco guri Jaungoico gure Jaunaren, eta Jesu Christo gure Erredemtoriaren [49] noticia distintoa.
- G. Nor da Jaungoicoa?
- E. Da gauza bat aiñ excellentia, eta aiñ admirablia ecin erran, eta ecin pensadaitequena; da Jaun bat infinitamente ona, Poderosa, Sabioa Justoa principio ta fiña gauza guciena onen premiazalia, eta gaistoen castigazalia [50].
- G. Trinitate santisima nor da?
- E. Da Jaungoico bera Aita, eta Semia, eta Espiritu Sandua, iru Persona distinto, eta Jaungoico bat eguiazkoa.
- G. Aita Jaungoico da?
- E. Bay Jauna.
- G. Semia Jaungoico da?
- E. Bay Jauna.
- [51] G. Espiritu Sandua Jaungoico da?
- E. Bay Jauna.
- G. Iru Jaungoico dire?
- E. Ez Jauna, baicic iru Persona distinto, eta Jaungoico bat egui eta Fedezcoa.
- G. Aita da Semia?
- E. Ez Jauna.
- G. Espiritu sandua da Aita edo Semia?
- [52] E. Ez Jauna.
- G. Cergatic?
- E. Cergatic Personac dire differentiac delaric ere Jaungoico bat bacarra.
- G. Jaungoicoac cembat Naturaleza, cembat Entendimentu, eta cembat Vorondate tu?
- E. Naturaleza bat bacarra, Entendimentu bat bacarra, eta Vorondate bat [53] bacarra. †
- G. Nola da Jaungoicoa Guztiz Poderosa?
- E. Cergatic bere podoriarequin bacarric eguitenbaitu naiduen gucia.
- G. Nola da Criazalia<sup>5</sup>.
- E. Cergatic deusetatic eguincituen gauza guciac.
- G. Eta certaco eguinzuuen Jaungoicoac Christava; dela guizonquia, dela [54] emacumia?

(3) Hola dio lehenbizi: *siñestazentuenac? Elizama Sandu catolicoac siñestazentuenac.* Gero, lerro artean hau sartu du: *Dauzquienac, eta siñestazentuenac (Elizama Sandu catolicoac).* Eta ahaztu zaio ipintzea *E. Errespondizendut.*

(4) "G."ren ondoan † bat ageri da. Maiz gertatzen da hori *Doctrina christiana* honetan "G."ren aldamenean, eta hiru aldiz bakarrik "E."ren ondoan. Bestalde, erantzunaren bukaeran ere askotan gertatzen da hori berria, baina inoiz ere ez galderaren amaieran. Gure ustez, Menéndez de Luarca-k erantsi zituen galdera-erantzunak adierazten ditu gurutzeak.

(5) Galdera gakoa ez du ezarri.

E. Mundu ontan servizadezan aren Divina Magestadia, eta guero gozadezan, eta alabadezan secula gucian Ceruco Glorian. †

G. Nola da Salvazalia?

E. Cergatic gracia eman, eta becatuac barcacentuen.

[55] G. Nola da Glorificazalia?

E. Cergatic aren gracian perseverazenduenari ematendion Gloria.

G. Jaungoicoac badu gorpuzic guc bezala?

E. Jaungoico den partetic ez Jauna, cergatic den Espiritu purua, baña bay Guizon den partetic.

G. Iru Persona Divinoetatic [56] ceiñ eguincen guizon?

E. Bigarrena, baita Semia.

G. Non eguinzen guizon?

E. Ama virginaren sabelian.

G. Noren obraz?

E. Espiritu Sanduaren obraz, eta virtutez.

G. Nola izanduzen obra ori?

E. Espiritu Sanduac Ama virgiñaren entreñetaco [57] odol chorta batequin formatu zuen gorpuz bat, deuseitatric criatu zuen anima bat; anima eta gorpuzta elcarrequin vnituric artucituen Trinateco bigarren Personac bere gana, eta ala len Jaungoico cena guelditucen Jaungoico eta Gizon eguiñic.

G. Aita eguinzen Guizon?

E. Ez Jauna.

[58] G. Espiritu Sandua eguinzen guizon?

E. Ez Jauna.

G. Bada nor?

E. Solamente Semia ceñiguizon eguinic daizo Jesuchristo.

G. bada gueroztic nor da Jesu Christo?

E. Da Jaungoicoaren Seme vicia ceiñ eguincen Guizon [59] gu erredimiziagatic eta vicimoduaz exemplo ematiagatic.

G. Jesu Christo gure Jaunac cembat Naturaleza tu?

E. Bida; bata Jaungoico den partetic, eta berzia Guizon den partetic.

G. Cembat Entendimentu?

E. Bida; bata Jaungoico den partetic, eta berzia [60] Guizon den partetic;

G. Cembat Vorondate?

E. Bida; bata Jaungoico den partetic, eta berzia Guizon den partetic.

G. Cembat Memoria?

E. Bat bacarra; eta vra Guizon den partetic; cergatic Jaungoico den partetic eztu Memoriaric, [61] eta ez biarric ere gauza guciaz oroizeco; cergatic Jaungoico den partetic gauza guciak dauzqui presente.

G. Eta cembat Persona arquizardire Jesu Christoren baitan?

E. Persona bat bacarra; ta vra Jaungoico den partetic; baita Trinateco bigarren Persona [62] Divinoa.

G. Cergatic erratenda, Jesu Christo gure Jauna izancela concebitua Ama Virgiñaren sabelian Espiritu Sanduaren obraz, eta virtutez?

E. Cergatic ezen concebitua izan berze yendiac bezala, baicic milagroz?

G. Eta yayocen berze yendiac bezala?

[63] E. Ez Jauna baicic milagroz; bere Ama Santismaren garbitasuna edo Virginidadia den gutiena galdu gabe, edo ciquindu gabe; Iguzquia sarzenden bezala vidrio batetic, edo cristal batetic, den gutiena vidrioa autsi gabe, edo manchatu gabe. †

G. Cer erranaidu Jesusec?

[64] E. Salvazalia.

- G. Certatic Salvatuguiñuen?  
 E. Gure becatuetatic, eta Demonioaren cautiveriotic.  
 G. Cer erranaidu Christoc?  
 E. Ungitua.<sup>6</sup>  
 G. Certaz ungitua izanducen?  
 E. Espiritu Sanduaren donez, eta graciaz.  
 G. Iru Persona divinoetatic [65] cein ilzen?  
 E. Semia Yauna.  
 G. Nola daizo?  
 E. Jesu Christo.  
 G. Non ilzen?  
 E. Guruzian.  
 G. Noren gatic?  
 E. Gu eta mundu gucien salvacia gatic.  
 G. Eta aren gorpuz cer eguincen?  
 E. Guruzian iru ordu pasatu eta ondoan orzizuten.  
 [66] G. Aren anima cer eguincen?  
 E. Yeusicen Limboetara an ceuden anima sanduen librazera.  
 G. Eta gero cer eguincen Jesu Christo?  
 E. Andic ill, ta irugarren egunian illen artetic erresuscitatucen vicietara.  
 G. Nola erresuscitatucen [67] illen artetic vicietara?  
 E. Yuntacencirelaric bere anima eta gorpuz gloriosoac elcarren gana ez beñere berriaz ilzeo.  
 G. Eta mundu ontan cenbat demboraz egonducen Jesu Christo erresuscitatu ta ondoan?  
 E. Berroguei egunaz.  
 G. Eta guero cer eguincen?  
 E. Igancen Ceruetara.  
 [68] G. Nola igancen Ceruetara.  
 E. Bere virtute propioaz.  
 G. Cer erranaidu: an dagola yariric Aita Eternoaren escuñeco aldian?  
 E. Jesu Christoc duela igual Gloria Ceruan Jaungoicotasanian nola Aitac eta Espiritu  
 [69] Sanduac; eta Guizontasanian berze edoceíñ Sandu, eta Santac baño gueyago.  
 G. Eta etorricoda berriaz Jesu Christo?  
 E. Bay Jauna.  
 G. Noiz?  
 E. Azquen Juicioco egunian.  
 G. Certara?  
 E. Onen eta gaistoen [70] yuzgazera.  
 G. Eta orduan erresuscitatu biardugu gucioc?  
 E. Bay Jauna orai ttugun gorpuz eta animequin.  
 G. Onei cer emanendio?  
 E. Seculaco Gloria.  
 G. Cergatic?  
 E. Cergatic guardatubaicituzten aren Mandamentu sanduac.  
 [71] G. Eta gaistoei cer emanendio?  
 E. Seculaco Infernuco pena.

(6) Hitz hasieran beti *V*- idazten du, bai *V* eta bai *U* adierazteko; beraz, *v* eta *u* berdin moldatzent ditu hizki haudietan. cf. 2. oharpena.

(7) Hemeretzigarren mendeko esku batek erantsia da *bere* hitza.

- G. Cergatic?
- E. Cergaticaren Mandamentu sanduac etzitzutzen guardatu.
- G. Cer erranaidu, Sanduen Comunioa?
- E. Christau Fiel bazuec gracian egon ezquiero, badutela parte berzien [72] ondasun espiritualetan gorpuz baten mienbroac bezala, ceñi baita Eliza.
- G. Nor da Eliza?
- E. Da Christau Fiel gucien yunta, eta Congregacioa ceñen burua baita Aita Sandua.
- G. Nor da Aita Sandua?
- E. Da Erromaco Sumo Pontifice Christoren Vicarioa lurrian, ceñi [73] gaude obligaturic obedizera.
- G. Credoaz, edo Articuloaz landara siñestazenduzu berzeric?
- E. Bay Jauna, Escritura sagratuan dagon gucia, eta Jaungoicoac Eliz Ama sanduari errevelatudion gucia.

#### [74] Doctrinaren Bigarren partia.

- G. Norc erranzuen Aita guria?
- E. Jesu Christoc.
- G. Certaco?
- E. Guri otoiz eguiten eracusteco [75].
- G. Cer gauza da otoiz eguitia?
- E. Da Jaungoicoa gana biotza gorazia, eta mersediac escazia.
- G. Cenbat modutara da Oracioa?
- E. Bi modutara; bata deizenda Oracio mentala, eta berzia itzezco Oracioa, edo vocala.
- E. Cer gauza da Oracio [76] mentala?
- E. Da consideracioarequin biozaren barrenian, batere itzic erran gabe eguitenden Oracioa.
- G. Eta cer gauza da itzezco Oracioa?
- E. Mingañarequin eguitendiren otoizac.
- G. Nola egunbiarda Oracioa, valiosoa izateco?
- E. Atencioarequin, humildadiarequin, confianzarequin, [77] eta firmequi, beñere aspertu gabe seguizendelaric. †
- G. Aita guria erratzunian norequin minzazenzara?
- E. Jaungoico gure Jaunarequin.
- G. Non dago Jaungoicoa?
- E. Lecu gucietan, particularqui Ceruan, eta, Aldareco Sacramentu Sanduan.
- [78] G. Ceiñ da Oracioetatic oberena?
- E. Aitaguria.
- G. Cergatic?
- E. Cergatic erranzuen Jesuchristoc bere ago sanduaz Apostoluac escaturic.
- G. Cergatic gueyago?
- E. Cergatic baitauzqui zazpi peticio Caridade gucion fundatuac.
- [79] G. Ceiñ da lenbicicua?
- E. Santificabedi zure icena.
- G. Cer escazenduzu peticio ortan?
- E. Jaungoicoaren Icen sandua izandadiela ezagutua, eta honratua mundu gucion.
- G. Ceiñ da bigarrena?
- E. Betor gu gana zure erreinua.
- G. Cer escazenduzu peticio [80] ortan?
- E. Erreinadezala Jaungoicoac emen gure animetan graciaz, eta guero emandezagula bere Gloria.

- G. Cein da irugarrena?  
 E. Eguinbedi zure vorondatia, Ceruan bezala lurrian ere.  
 G. Cer escazenduzu peticio ortan?  
 E. Eguindezagula lurrian gauden hoc Jaungoicoaren vorondatia, Ceruan Bienaventuratuac eguitenduten bezala.  
 G. Cein da laugarrena?  
 E. Emandezaguzu egunorozco gueren ogua.  
 [81] G. Cer escazenduzu peticio ortan?  
 E. Emandezagula Jaungoicoac mantenimentu convenientia gorpuzarendaco, graciaren espirituala, eta animendaco Sacramentuac.  
 G. Cein da vorzgarrena?  
 E. Barcaizquiguzu guri gueren zorrac, guc barcazentiegun bezala gueren zordugunei.  
 G. Cer escazenduzu peticio ortan?  
 E. Barcadetzagula Jaungoicoac guri gueren becatuac, guc barcazentio gun bezala guagrabiato, edo gaizqui eguindigutenei.  
 G. Cein da seigarrena?  
 E. Ezgaitatzula vtzi [82] tentacioan erorzena.  
 G. Cer escazenduzu peticio ortan?  
 E. Ezgaitzala Jaungoicoac vtzi ez erorzena, eta ez consentizera pensamentu, eta tentacio gaistoetan, ceñequin Demonioac procurazendu, gu becatuan erori aztia.  
 G. Cein da zazpigarrena?  
 E. Baicic libragaitatzu gaizetic.  
 G. Cer escazenduzu peticio ortan?  
 E. Libragaitzala Jaungoicoac gaitz espiritual, eta temporale guciatic.  
 G. Cergatic erratenduzu lenbicitic, Aitaguria Ceruetan zaudena?  
 [83] E. Jaungoicoa gana biotza gorazeco, eta mersediac escazeceo humildade, eta confianzarequin.  
 G. Cer erran naidu, Amen?  
 E. Ala izandadiela.  
 G. Cer Oracio errerazendiozu principalqui Ama Virgiñari?  
 E. Ave Maria, eta Salvia.  
 G. Norc erranzuen, Ave Maria?  
 E. Ainguera San Gabrielec salutazera etorricenian Ama Virgiñari.  
 G. Norc erranzuen Salvia?  
 E. Eliz Ama Sanduac dauca erreccibitturic.  
 G. Certaco?  
 [84] E. Favoriac escazeceo gure Señora Ama Virgiñari  
 G. Ave Maria, edo Salvia erratenduzunian, norequin minzazenzara?  
 E. Ama Virgiñarequin.  
 G. Nor da Ama Virgiña?  
 E. Da Señora bat virtutez betia, Jaungoicoaren Ama, eta Ceruan dagona.

(8) Erantzun hau ez dago ongi moldatua. Gure ustez, honela izan behar luke: ...*gracia espiritual, eta Sacramentuac animendaco*. Zer esan nahi du honek? Guk ikusi dugun liburua ez dela itzultzaleak idatzi zueña, baizik eta haren kopia bat, beste batek edo batzuek —ez dugu ahaztu behar bi eskuk zertu dutela eskuiz-kribua— egina?

Utergako Kristau Ikasbideak honela esaten du: *eta gracia espiritualea sacramentuequi animendaco*, eta Damaso Legazek honela: *eta animarenzat gracia ta Sacramentuac*.

Cf. F. Ondarra, "Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Urteaga (Valdizarbe)" *FLV* 35-36 (1980), 173-221 (Ik. 217. or.); *Cristauaren Icasbidea*, Aita Gaspar Astete eguna, ... Dre. D. José Oliver eta Hurtado, Iruñeko Obispo choy Arguaren aguinduz, ... Iruñan: J. Lordaren Moldizteguian. 1880. (Ik. 21. or.).

(9) Hola dio "zordugunei", "zordigutenei" esan beharrean.

- G. Eta Aldarian dagona nor da?  
 E. Aren imagiña, edo semejanza bat.  
 G. Certaco dago an?  
 E. Ura icusi, eta Ceruan dagonaz oroittugaitecen, [85] eta cergatic den aren imagiña, eguidezogun erreverencia.
- M.<sup>10</sup> Bada orobat eguinbiarda berze Sanduen imagiñequin ere.  
 G. Eguinbiardugu otoiz Aingueruei, eta Sanduei ere?  
 E. Bay Jauna, gueren bitartecoei bezala.  
 G. Cer gauza dire Aingueruac?  
 E. Dire espiritu bienaventuratu bazuec, Ceruan Jaungoicoaz gozazen daudenac.  
 G. Certaco criatucittuen Jaungoicoac?  
 E. Eternidade gucion Jaungoicoa [86] alabazeco, eta bedeicazeco.  
 G. Certaco gueyago?  
 E. Aren Ministroac bezala Eliza governazeco, eta yendiac guardazeco.  
 G. Gueroztic baduzu zuc Aingeru Guardiacoa?  
 E. Bay Jauna, eta Christau bacochac badu beria.  
 M. Bada iduquiyozu devocio andia, eta encomendazaite ari egunoro.

#### **Irugarren Partia: Cer obratu biardugun.**

- G. Cein da Jaungoicoaren [87] Leguezco lembicico Mandamentu Sandua?  
 E. Gure Jaungoicoa onetsi, eta maitadezagula gauza guciac baño gueyago.  
 G. Norc maitazendu Jaungoicoa?  
 E. Aren Mandamentu Sanduac guardatzenttuenac.  
 G. Cer da Jaungoicoa onetsizia gauza guciac baño gueyago?  
 E. Nayago lenago gauza guciac galdu Jaungoicoa ofendittu baño.  
 G. Certara gueyago obligengaittu Mandamentu onec?  
 E. Jaungoicoa bacarric adorazera animaren, eta gorpuzaren [88] erreverencia andia-requin, siñestazzen, eta esperazendugularic aren baitan Fede viciarequin.  
 G. Norc eguitendu becatu Mandamentu onen contra?  
 E. Idoloac, edo Jaungoico falsoac adorazenttuenac, eta ayen baitan siñestazenduenac: Fediareni contra cerbait siñestazenduenac: Fedeco Misterioren batian duda parazenduenac: Fedeco Misterioac, beinzat precisoenac bere faltaz ongi eztaquizquierac: Acto Fedezcuac, Esperanzazcuac, eta Caridatzcuac bere dembora yaquiñetan eguiten eztuenac: Jaungoicoaren baitan confianzaric [89] eztuenac; eta Sacramentu Sanduren bat biarden disposicionir gabe errecibenduenac.
- G. Noiz eguinbiadire Acto Fedezcuac, Esperanzazcoac<sup>11</sup>, eta Caridatzcuac?  
 E. Siquiera Yayeko egunetan.  
 G. Eta nola eguittendire Acto Fedezcuac, Esperanzazcuac, eta Caridatzcuac?  
 E. Devociozko Libru onetan eracustenda nola eguinbiardiren. Baña berzerik eztaquienac, cumplittucodu, atencioarequin, espacioarequin, eta devocioarequin erraten-battu Credo, eta Jesu Christo [90] nere Jauna. †  
 G. Norc gueyago eguitendu becatu Mandamentu onen contra?  
 E. Agueroetan siñestazenduenac, eta echiceriaz, edo gauza supersticiosoaz valiazendenac.  
 G. Cein da bigarrena?  
 E. Juramenturik vanoan eguiñ eztezagula.  
 G. Norc eguitendu Juramentu vanoan?  
 E. Juramentu eguitenduenac egquia gabe, iusticia gabe, eta necesidaderic gabe.

(10) "Maistru" edo "Maisu" nahi du adierazi, cf. 86. eta 176. orak.

(11) Lehenbizi *Esperanzaz*; gero lerro artean *coac* erantsi.

- G. Noiz eguitenda juramentua eguiā gabe?
- E. Batec daquielaric, gauza [91] bat guezurra dela, edo orobat dudan dagolaric, gauz vra siñestarazteco juramentua eguitenduenian.
- G. Eta cer becatu eguitendu alacuac?
- E. Eguitendu becatu mortala, gauza chiquiaren gañian eguitenbadu ere.
- G. Noiz eguitenda juramento iusticiaric gabe?
- E. Norbaitec juramento eguitenduenian gaizquiren bat eguinbiarduela.
- G. Eta cer becatu eguitendu alacuac?
- E. Gauza gravia baldinbada eguin gogo duena, eguiñendu becatu mortala; baña gauza levia [92] baldinbada, solamente eguiñendu becatu venialia.
- G. Noiz eguitenda juramentua necesidaderic gabe?
- E. Motivo andiric gabe, eta premia andiric gabe juramentua eguitendenian.
- G. Eta cer becatu da ori?
- E. Berze gañeracuan eguiarequin, eta iusticiarequin eguiten baldinbada, solamente izanenda becatu venialia.
- G. Eta juramentu, edo voto, edo promesa eguitenduenac, obra onen bat eguinbiarduela, dago cumplizera obligatua?
- E. Bay Jauna, becatu mortalaren azpian, aguinduduen [93] gauz vra gauza grabia baldinbada.
- G. Eta manazenda berzeric Mandamentu ontan?
- E. Bay Jauna; manazenda, eztaitecela bota blasfemiac.
- G. Cer da blasfemiac botazia?
- E. Burlazco, edo menospreciozco solas gaistoren bazuec erratia Jaungoicoaren contra, edo Ama Virgiñaren contra, edo berze Sandu, edo Santaren baten contra.
- G. Eta cer becatu da ori?
- E. Becatu mortala. †
- G. Cer erremedio da juramenturic vanoan ez eguiteco?
- [94] E. Acostumbratu erratera ez, edo bai Jesu Christo gure Jaunac eracustendigun bezala.
- G. Ceiñ da irugarrena?
- E. Yayac, eta Igandiac<sup>12</sup> osoqui guardadetzagula.
- G. Norc guardazenttu Yayac, eta Igandiac?
- E. Meza osoa enzutenduenac, eta hetan trabajazen eztenac necesidaderic gabe.
- G. Eta cer becatu eguitendu Yayetan necesidaderic gabe trabajazendena?
- E. Bi ordutara allegazebaldinbada, becatu mortala, baña andic beiti aguiz comun solamente izanenda becatu veniala. †
- [95] G. Cein da laugarrena?
- E. Gueren Guratsoac, eta zarragocoac ongui honratu, eta errespetadetzagula.
- G. Norc honrazenttu Guratsoac?
- E. Obedienttuenac, erreverenciazenttuenac, eta socorrienttuenac.
- G. Ceñec eguitendute becatu mortala obligacio hoquen contra?
- E. Gauza gravian, edo importaciozcoan beren Guratsoei obedizen eztioten humiac; necesidadian, edo biarrian arquizendirenian, dezaqueten moduan socorrizen eztutztenac; hequendaco gaizqui minzazendirenac, [96] edo burla, edo menosprecio cerbait eguitendienac; hequi Yozera, edo escua alchazera atrevizendirenac; eta hequi atencionic ecarri gabe beren guisa ezconzendirenac.
- G. Eta humiaz landara ezta berze norbait comprendizen Mandamentu ontan?
- E. Bay Jauna, guisa berian daude comprehendituric cer obligacioac ttuzten, eta nola portatubiarduten Nirabiak beren Nausi, Echecho Andreequin; Superioriac, edo Cargudunac beren cargura dauzquitenequin; eta Guratsoac beren humiequin.

(12) Irakurri 2. oharpenean esan dena. Hemen "Yayac, eta Igandiac" dugu, biak Y- dutela hasieran.

G. Cer obligacioac ttuzte Guratsoac beren humequin?

E. Beñicpeñ mantenatubiarttuzte; [97] guero eracutsibardi doctrina ona: erreprendittubiarttuzte, eta castigatubiarttuzte merecidutentian: emanbiardie exemplo ona, eta beren demboran correspondizenzayen estaoa. †

G. Nor gueyago entendizendire Aita, eta Ama gatic?

E. Gueyacoac adiñian, dignidadian, eta governuan.

G. Ceiñ da vorzgarrena?

E. Iñor ill eztezagula.

G. Cer manazenda Mandamentu ortan?

E. Ez iñori gaizquiric eguitia; ez itzez, ez obraz, eta ez deseyoz.

G. Eta norc eguittendu becatu [98] mortala Mandamentu onen contra?

E. Ilzia, edo berze gaitz andiren bat bere buruari, edo lagun progimoari deseazendionac: odioa, edo corrotoa iduquizendionac: norbait ilzenduenac; edo ez illic ere, norbaiti colpe charren bat ematendionac: bere buruari osasuna, eta juicioa galzeco moduan cerbait yaten, edo edatenduenac: bere vicia peligroan parazenduenac, edo bere burua ilzenduenac; eta maldicioac, eta otoiz gaistoac botazenttuenac.

G. Cer becatu da otoiz gaistoac botazia?

E. Aguitz comun becatu mortala; cergatic deseyazenzayo gaitza lagun progimoari; eta etzayo iñori [99] gaitzic deseyatubiar.

G. Eta maldicio sollac botazia, iñori gaitzic deseyatu gabe, cer becatu da?

E. Aguitz comun solamente da becatu veniala; baña ala ere eztire botabiar; cergatic beti dire Jaungoikoaren ofensac; eta cebait aldiz izandaitezque becatu mortalac.

G. Noiz izanendire becatu mortalac?

E. Botazenttuztenian Guratsoac, Nausi Echeco Andriac, edo berze cebait Cargudunac beren familiaren aiztiñian; cergatic egemplo ona emanbiarrian, ematenbaitiote gaistoa. †

G. Ceiñ da seigarrena?

[100] E. Luxuriazco becaturic eguiñ eztezagula.

G. Cer manazenda Mandamentu ortan?

E. Izangaitecela garbiac, eta castoac izetan, obretan, eta pensamentuetan.

G. Norc eguitendu becatu mortala Mandamentu onen contra?

E. Gusto arzendutenac, eta consentizendutenac pensamentu desonestoetan; naiz ez obrazera allegatu; nolanai erratenttuztenac itz arroac, eta desonestoac: cantazenttuztenac, edo gustoarequin cantazen adizenttuztenac cantu gaistoac, eta desonestoac: [101] eta obraz eguitenttuztenac accione gaistoac, eta desonestoac, edo obrazia deseazendutenac. †

G. Ceiñ da zazpigarrrena?

E. Iñori deus ebatsi eztezogula.

G. Cer manazenda Mandamentu ortan?

E. Ez quenzia, ez iduquizia, eta ez nai izatia berzeren gauzaric yabiaren vorondatiaren contra.

G. Eta norc eguittendu becatu mortala Mandamentu onen contra?

E. Edoceñ guisaz lagun proximoari bere [102] ondasunetan perjuicio gravia eguitendionac.

G. Eta cer obligacio du alacuac?

E. Du obligacio gravia becatu mortalaren azpian errestitucioa eguiteco lenbait len, edo alduen moduric obrenian eguinduen dañua erremediazeco. †

G. Cein da zorzigarrena?

E. Iñori falso testimonioric erauqui eztezogula, eta ez gueyago guezurric erran.

G. Cer manazenda Mandamentu ortan?

E. Ez juicio gaistoric eguitia fundamenturic gabe, [103] edo motivoric asqui izan gabeko progimoaren contra, ez erratia, eta ez adizia aren faltac.

- G. Norc austen du Mandamentu ori?
- E. Arrazoyaren contra yuzgazenduenac, fama quenzenduenac, secretoa aguerzen-duenac, eta guezurra erratenduenac.
- G. Eta bere lagun progimoari honra, edo creditua quenzendionac, cer obligacio du?
- E. Du obligacio becatu mortalaren azpian honra, edo creditua izulzeco alduen moduric obrenian. †
- [104] G. Cer devecazenda bederazigarren, eta amargarren Mandamentuetan?
- E. Desonestidadiaren, eta haciendaren deseyo desordenatuac.

### **Eliz Ama Sanduaren Mandamentuac dire vorz.**

- Lembicicoa, Yay, eta Igande gucietan Meza bat osoa enzutia.
- Bigarrena, vrtian beiñ bada ere confesazia; edo lenago eriozeco peligrorik baldinbadu, edo [105] comecatu biarbaldinbadu.
- Irugarrena, Bazco Garizumecotan comecazia.
- Laugarrena, Eliz Ama Sanduac manazenduenian baruzia.
- Vorzgarrena, Amarren, Primiciac oso, eta lealqui Elizari eguitia.
- G. Certaco dire Mandamentu hoc?
- E. Obequi guardazeco Jaungoikoarenac.
- G. Cer gauza da Meza? 184<sup>13</sup>.
- G. Nor dago obligaturic Yayetan Meza enzutera?
- [106] E. Juiciora, eta capacidadera allegatudiren guciac.
- G. Eta nola enzun biarda Meza Sandua?
- E. Atencioarequin, eta devocioarequin, cerbait gauz on considerazendelaric, edo errezzazendelaric.
- G. Eta motivo iistoric gabe Meza vts eguitenduenac, edo galzeco peligroan yarzen-duenac, edo bere faltaz atencioric gabe, edo devocioric gabe Mezaco denbora andian egotendenac, cer becatu egittendu?
- E. Egittendu becatu mortala.
- G. Nor dago obligaturic vrtian beiñ gutiena confesazera?
- [107] E. Juiciora, eta capacidadera allegazendirenac.
- G. Eta vrtian beiñ siquiera confesa, comecatu gabe gueldizendirenac, cer becatu eguitendute?
- E. Becatu mortala.
- G. Eta gaizqui confesazendirenac, eta comecazendirenac, cumplizendute Mandamentu onequin?
- E. Ez Jauna; baicic lenago egittenttuzte berri berritic bi becatu mortale icigarriac.
- G. Eta nor dago obligaturic baruzera?
- E. Oguei ta bat vrt cumplittuttuzten guciac; [108] ezpaldinbadute neque gogorric, edo eritasunic, edo berze motivo iustoren bat.
- G. Eta noiz artio seguizendió<sup>14</sup> obligacio orrec? Cenbat vrtetaraño?
- E. Ezta adiñ señalaturic: nolaco osasuna edo disposicioa duen batec; eta obligatua dagon, edo eztagon, erranbiardute ongi consideraturic Medicuac edo Barberac, edo Confesoriac.
- G. Nola barutubiarda?
- E. Sobra escrupulotan ibilli gabe, ongi cumplitu naiduenac, asqui du conformacia conciencia [109] onetako personequin; eta hec nola baruzendiren, ala barutubedi; eta dificultaderen bat baldinbadu, comunicabeza confesore on batequin.

(13) Ahaztu zaio ipintzen G. *Cer gauza da Meza?* eta galdera honi dagokion erantzuna. Horregatik, gero erantsia da galdera; eta erantzuna berriz 184. orrialdean ipini du, galdera erreppikatzen duela hor.

(14) Azentu marka darama: “-diō”.

E. Eta batere motivo iusturic gabe, barutu gabe, gueldizendirenac, cer becatu eguitendute?

E. Becatu mortala.

G. Yandaiteque araguia baru egunian, edo vigilia egunian?

E. Solamente yandaiteque Bula denian, edo porsiacaso Bularic ezpaldinbada, necesidate [110] andia, edo motivo iustoia denian; eta dudaric baldinbada, asqui da Confesoriari galdezia: solamente eztaiteque otordu batian yan araguia, eta arraiñ gauza; eta batec cenbat aldiz yatenduen, amberze aldiz eguiñendu becatu mortala.?

**Obra Misericordiosoa,  
dire amalau, zazpi espiritualac, eta zazpi corporalac.  
Espiritualac dire hoc.**

Lembizicua, eztaquienari [111] eracustea. Bigarrena, biarduenari conseju ona ematea. Irugarrena, gaizqui eguitenduenari corregizea. Laugarrena, injuriec barcacea. Borzgarrena, triste dagona consolazea. Seygarrena, lagun proximoaren faltac, eta flaquezac pacienciarequin sofrizia. Zazpigarrena, illen eta vicien gatic Jaungoicoari otoiz eguitia.

**Zazpi corporalac dire hoc.**

Lembicicoa, eriac visitazia [112]. Bigarrena, gosiac dagonari yatera ematia. Irugarrena, egarriac dagonari edatera ematia. laugarrena, cautivoac errescatazia. Vortzgarrena, bilusiac veztizia. Seygarrena, pobre, eta peregrinoei ostatua ematia. Zazpigarrena, illac enterrazia.

G. Cergatic deyzendire misericordiosoa?

E. Cergatic eztiren zor iustiziaz.

G. Noiz obligendute becatuaren [113] azpian?

E. Guizon discretoac iuzgazentzen necesidate gravetan.

G. Eta obra misericordiozco hoc, eta berze cebait obra on ala devociozcoac, nola obligaciozcoac obraziarequin Christau batec cer logratucodu?

E. Jaungoicoaren gracian baldinbadago beñicpeiñ, aumentatucozayo gracia; eta guero Cerura yuatendenian, nolaco gracia izanduzuen mundu<sup>15</sup> ontan, ala emanenzayo [114] an Gloria. Artaz landara obra on hequin pagazentu, eta purgazentu bere becatuac; eta yarzenda disposicioan gure Jaungoicoa ganic lograzeco ondasun andiac ala amarendako nola gorpuzarendaco, gonenibaldinbazaizquierdo.

G. Cergatic erratenduzu Jaungoicoaren gracian baldinbadago?

E. Cergatic becatu mortalian dagolaric, batec eguitentuen [115] obra onac, eguaia da eztire choll galduac; beti baliodule cerbait; baña eztire gauza ez Ceruco Gloria irabazteco, eta ez becatuen zorrac pagazeco. †

**Laugarren partia.  
Cer erreccibitubiarden.**

G. Eliz Ama sanduaren Sacramentuac cenbat dire?

E. Zazpi.

[116] G. Ceiñ dire?

E. Eliz Ama sanduaren sacramentuac dire zazpi. Lembicicoa, Bautismoa. Bigarrena, Confirmacioa. Irugarrena Confesio, laugarrena comecazia. Vortzgarrena, Oliadura, Seygarrena Ordena. Zazpigarrena, Matrimonioa.

(15) Egia esan, *izanduzuenmundu* dago, dena batean, *izanduzuen-* lero bukaeran eta *mundu* hurrengo lerroaren hasieran daudelarik.

G. Cer gauza dire Sacramentuac?

E. Dire señale manifesto bazuec Christo gure [117] Jaunac eguincituenac, guri hequen medioz emateco bere gracia, eta virtutiac.

G. Cer gauza da gracia?

E. Da izate Divino bat<sup>16</sup> ceñen medioz eguitengara Jaungoicoaren hume eta Ceruco heredero.

G. Eta gracia ontaz landara eztire berze cenbait gracia genero?

E. Beñicpeiñ au da Christau batec preciso biarduen Gracia principala salvazeco [118] disposicioan egoteco; au da, ona eta iustoa, izateco. Baña ontaz landara badire berze cenbait gracia genero.

G. Cer gracia genero dire hoc?

E. Hoc dire Jaungoicoac aniz aldiz ematentigun lagunzac, arguitasunac, edo avisuac obra onen bat eguiteco, estimatubiarbaytugu aniz; cergicte hoc gabe ezguenuque gauz [119] onic eguiñen.

G. Noiz eta nola ematentu, eta bigalzentu Jaungoicoac lagunza hoc, arguitasun hoc, eta avisu hoc?

E. Asco ocasioz, eta asco aldetara. Bazuetan Predicu onac nombait eguitendirenian; berce bazuetan; norbaytec exemplo on bat ematendiganian; berze bazuetan nor-bait derrepente ilcendenian, edo nonbait desgraciaren bat edo escarmenturen bat guertazendenian. †

[120] G. Cer virtute ematendute Sacramentuac Graciarequin batian?

E. Principalqui iru, theologalac, eta divinoac.

G. Ceñi dire?

E. Fedia, Esperanza eta Caridadia.

G. Cer gauza da fedia?

E. Icusi gabeko gauza siñestacia, cergicte Jaungoicoac errevelataduen.

G. Cer gauza da Esperanza?

E. Esperacia Ceruco Gloria [121] Jaungoicoaren gracia, eta gueren obra onac direla medio.

G. Cer gauza da Caridadia?

E. Maitazia Jaungoicoa gauza guiac baño gueyago, eta gueren lagun proximoac geuren<sup>17</sup> buruac bezala izaten garelaric hequin guc naiguenuquen bezala hec izatia grarequin.

G. Certaco da Bautismoco Sacramentua?

E. Becatu originala eta [122] berze edoceñ batayazendenaren baitan arquizendena quenzeko.

G. Nori tocacenzayo batayazia?

E. Daytequenian solamente tocacenzayo Sacerdotiari; baña Sacerdotez moduric<sup>18</sup> eztenian, eta necesidate orduan, edoceñec batayadezaque, dela guizonquia, dela emacumia, juicioa, eta capacidadia izan ezquiero.

G. Eta nola batayatubiarda?

[123] E. Asqui da aurri<sup>19</sup> vr garbi pisca bat botazia; eta botazeracuan itz hoc errata: Nic batayazenzaytut Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu Sanduaren icenian. Amen. †

G. Cer gauza da Becatu originala?

(16) Lehenbizi "Divinoat" idatzi du. Gero, ez dakigu *Divinobat* ala *Divino bat* irakurri behar den.

(17) Hiru hitz lehenago "gueren" ikusten dugu eta orain "geuren".

(18) Dieresia antzeko marka -i- gainean. Berdin beste hitz hauetan: "guizonquia" 122, 3; "emacumia" 122, 3; "juicioa" 122, 3; "bira" 122, 4; "icentan" 123, 1; "Confesiotic" 129, 2; "tugunian" 146, 3; "baldin" 146, 3; "diogula" 146, 3; "obligacion" 147, 1; "paldin" 147, 3.

(19) Lehenbizi honela: "Asqui da vr garbi pisca bat *aurrari* botatzia"; gero, beste tinta batez baliaturik, *aurrari* tokiz aldatu eta "Asqui da *aurrari* vr..." egin du.

E. Da becatu vra, ceñequin gucioc yayoengara heredaturic gueren, lenbizico Aita eta Amen ganic.

G. Certaco da Confirmacioco Sacramentua?

[124] E. Firmago, eta seguroago yarrigaitecen, Batayoan errecibitu guenuen Fedian.

G. Nola errecibitubiarda Confirmacioco Sacramentua?

E. Estado graciazcoan dagolaric.

G. Eta estado graciazcoan egon gabe errecibizenduenac cer becatu eguitendu?

E. Persona larria izan ezquiero, becatu mortala.

G. Eta nola yarricoda estado [125] graciazcoan?

E. Confesio on bat eguitiarequin. †

G. Certaco da Confesioco Sacramentua?

E. Batayatu ezquiero eguitendiren becatu gucien barcazezo.

G. Cer becatu dire orie?

E. Mortalac, eta venialac [126] ere bay.

G. Cer gauza da becatu mortala?

E. Da erratia, eguitia, pensazia edo deseacia gauza graveren bat Jaungoicoaren Le-guiaren contra.

G. Cergatic deizen da mortala?

E. Cergatic ilcenbaytu eguitenduenaren anima.

G. Cenbat parte dauzqui Confesioac becatu mortala [127] barcazezo?

E. Vorz.

E. Ceñ dire?

E. Lenbicicua, concienciaren exâmiña<sup>21</sup>; bigarrena Doloria; irugarrena Propositoa; Laugarreña Confesioa: vorzgarrena Satisfacioa.

G. Cer gauza da concienciaren exâmiña?

E. Bere becatuac memoriara ecarcia.

G. Nondic ecarrikotu?

E. Jaungoicoaren leguezco [128] amar Mandamentu Sanduetatic, Elizeco vorzetatic, eta bere Estadoaren obligacioetatic.

G. Cenbat denbora artubiardu conciencia exâmiñazeco?

E. Ezta denbora elegiturik nolako denbora duen Confesaturic; nolako cargoak, eta obligacioac tuen, eta nolako becatuac tuen.

G. Eta batec bere conciencia [129] ongi errepasazeco, cer diligenciac eguinbiartu?

E. Lembicicoric escatubiardio gure Jaungoicoari lagunza, eta arguitasuna, aren contra eguintuen ofensac ezaguzeco Ama Virginia<sup>22</sup> bitarteko paraturic. Eta guero paratu-biardu cuidado andia Mandamentu guiac ongi errepasazeco; eta ondarreko Confe-siotic asi eta dagon orduraño, ona izanbaldinbada, atera-biardu contua iñalian cenbat [130] becatu eguintuen, guti gora bera, eta cer generotacuac diren beinzat mortalac. †

G. Cer gauza da Doloria?

E. Arzia biozeco Damu, eta urriquimentu sobrenatural bat gure Jaungoicoa ofendi-tuaz.

G. Cenbat modutara da?

E. Bietara.

G. Ceñ dire?

(20) Erantzun honen ondotik honako galde-erantzun hauek daude ezabaturik: *G. Certaco da Confirmacioco Sacramentua? / E. Confirmazeco, eta fortalizizcoo (sic- li-) Batayoan errecibituguen* (sic eta ez “gue-nuer”) Fedia.

(21) Azentu marka darama “exâmiñazeco” hitzak. Holaxe ageri da hurrengo paragrafoan ere; eta “exâmiñazeco” hurrengo orrialdean, bigarren paragrafoan.

(22) Lerro artean erantsia eta 18. oharpenean aipatu dugun tintaz baliaturik: *Ama Virginia bitarteko para-turic.*

E. Atricioa eta Contricioa.

G. Cer gauza da Contricioa?

E. Arzia biozeco damu eta [131] vrriquimentu sobrenatural bat gure Jaungoicoa ofendituaz, cergicat den Jaun bat aiñ ona; proposito firme batequin ez seculan becaturic eguiteco: eguintuenac confesazeco eta Confesoriac ematendion penitencia cumplizeco.

G. Cér gauza da Atricioa?

E. Arzia damu eta vrriquimentu sobrenatural bat gure Jaungoicoa ofendituaz cergicat gueren becatuac [132] direla medio galdu baytugu Cerua, eta mereci baitugu Infernua; proposito firme batequin ez seculan berriz becaturic eguiteco eguitentuenac confesazeco, eta Confesoriac ematendion penitencia cumplizeco.

G. Ceiñ da oberena, Atricioa edo Contricioa?

E. Contricioa?<sup>23</sup>

G. Cergatic?

E. Cergatic contricioac berac bacarric barcadetzaque [133] becatuac Confesioric gabe, Confesaseco<sup>24</sup> moduric eztenian, baña Atricioac bacarric ez confesatu gabe.

G. Cer gauza da Propositoa?

E. Arzia erresolucio firme bat ez seculan berriz becaturic eguiteco.

G. Cer gauza de Confesioa?

E. Confesoreari bere becatuac osoqui erratia; ciertoac, ciertoac bezala; dudosoa, dudosoa bezala; mortalac, mortalac bezala [134], venialiac venialac bezala; conciencian dauzquier bezala, ez gueyago eta ez gutiago.

G. Eta batec lotsaz vtzenbatu cebait becatu mortale confesazeco, eta naiz bat bacarra; edo ezpaldinbadu ziñezco doloria edo damutasuna eguintuen becatuaz, edo proposito firmia emendazeco, confesazenda ongi?

E. Ez Jauna; baicic lenago eguitendu maldade [135] bat izigarria: eguitendu sacrilegio bat.

G. Bada cer eguinbiardu alacuac ongi Confesaturic gueldizeco?

E. Confesatubiardu berri berritic biarden disposicio guciarequin, bat bacarra ere faltaz vtzi gabe.

G. Eta norc izandezaque erreceloa confesazeracuan eztuela izan biarden doloria, eta proposito firmia?

E. Bere faltaz becatu [136] eguiteco peligroren batian, edo ocasio gaistoren batian vicidenac; eta bere partetic enmendazeco<sup>25</sup>, eta ocasiotic, apartazeco den gutiena diligenciari eguiten eztuenac.

G. Cer eguinbiardu ongi confesaturic guelditu naiduenac bere becatuen doloria, eta damutasuna formazeco, eta emendazeco proposito firmia arzeo?

[137] E. Confesazera allegatu baño lenago pensatubiardu, eta consideratubiardu, ongi<sup>26</sup>, cer favoriac, eta mersediac errebitutuen Jaungoicoa ganic; ceiñ maldade an dia eguiduen amberze aldiz aren Divina Magestadia ofendizian; escatubiardio emandezola biarduen lagunza, eta gracia ziñezco Doloria formazeco; guero errandezaque biozetic ez solamente beiñ, bay eta vi aldiz, eta [138] iru aldiz ere, Jesu-Cristo<sup>27</sup> nere Jauna. †

G. Cer gauza da Satisfacioa?

E. Confesoriac ematendion Penitencia cumplicia.

(23) Galdera gakoa ipini du.

(24) Hola dago: "Confesaseco", hasieran hizki haundia duela eta barruan -se- dioela -ze- esan beharrean.

(25) Hola dio: "enmendazeco", baina hurrengo paragrafoan "emendazeco".

(26) Lerro artean erantsia ongi.

(27) Hola dio: "Cristo", ez "Christo". Ez dugu ahantzi behar orrialde hauek dudarik gabe hemeretzigarren mendeko batek bete dituela.

- G. Cenbat denboraren buruan cumplitubiardu batec ematenzayon penitencia?
- E. Confesoriac señalazebaldinbadio denbora denbora artan; baña Confesoriac señalazebaldinbadio dembora aliqueto lasterrena.
- [139] G. Eta batec ezpaldinbadu cumplizen emanzayon penitencia, edo denbora andian vztenbadu cumplizeco, cer becatu eguitendu?
- E. Bere faltaz vztenbadu, eta penitencia andia<sup>28</sup> baldinbada eguiñendu becatu mortal.
- G. Eta Jaungoicoari gueren becatuequin eguitentiogun zorrac pagadetzaquegu berze guisa penitenciaz landará?<sup>29</sup>
- [140] E. Bay Jauna.
- G. Cer guisa bada?
- E. Indulgenciac irabaziarequin.
- G. Cer gauza da Indulgencia?
- E. Aita Sanduac, edo Obispoac, edo alaco Superior<sup>30</sup> principal batec Jaungoicoaren partez ematenduen mundu ontan edo berzian [141] pagatubiarden becatuen zorraren barcacio bat.
- G. Eta cer comprendizenda Indulgencia Plenaria?
- E. Zor gucia arraso barcazendenian.
- G. Eta Purgatorioan beren becatuen zorrac pagazen, edo purgazen dauden animac aliviadetzaquegu, eta socorridetzaquegu mundu ontan vicigaren [142] hoc cerbait guisaz?
- E. Bay Jauna; hequen sufragiotan obra onac aplicazentugularic. †
- G. Eta batec becatu mortal eguitenduen bezain laster beila confesatubiardu barcacobazayo?
- E. Ongui lizeque baña epta necesario.
- G. Cer eguiñbiardi bada?
- E. Iduqui damutasun [143] andi bat gure Jaungoico ofendituaz, proposito firme batequin ez seculan berriz becaturic eguiteco, eta confesazeco Eliz Ama Sanduac manazduenian.
- G. Cer gauza da becatu venialia?
- E. Da erratia, eguitia, pensazia edo deseacia gauza leveren bat Jaungoicoaren Leguiaren [144] contra.
- G. Cergatic deizenda venialia?
- E. Cergatic erraz erorzenda guizona artan eta erraz barcazenzayo.
- G. Cenbat gauzen gatic barcazenzayo?
- E. Bederaciengatic.
- G. Cein dire?
- E. Lembicua<sup>31</sup>: Meza enzutia gatic. Bigarrena Comecazia gatic: Irugarrena [145], Confesio generala gatic. Laugarrena, Obispoaren bedicioa arzia gatic. Vorzgarrena, Sermona adicia gatic, Seygarrena, Pater noster erratia gatic. Zazpigarrena ogui bedicatu arzia gatic. Zorzarren, vr bedicatu arzia gatic: Bederacigarrena, pechoan golpiac arzia gatic escazenzayolaric Jaungoicoari [146] barcacioa.
- G. Cergatic erratenduzu, Escazenzayolaric Jaungoicoari barcacioa?
- E. Comprendizera emateco, gauz oriec eguitentugunian, naybaldinbadugu Jaungoicoac becatu venialiac barcazia, escatubiardiogula biozetic bada ere barcadetzala, eta iduqui biardugula hec eguiñaz damutasuna.

(28) Lehenbizi *larria* idatzi du eta gero *andia*.

(29) Azentu marka darama hitz honek: "landará".

(30) Lehenbizi *Cargudun* ipini du eta gero *Superiore*.

(31) *Lembicua* dio, eta ez "*Lembicicua*". cf. "Lenbicicoa" 157. orrialdean, 5. paragrafoan.

[147] G. Eta bada obligacionic becatu venialiac confesazeco?

E. Ezta obligacionic, baño ezta Confesioa bezalacoric hequen barcacioa lograzeco.

G. Eta batec confesazera duayenian ezpaldinbadu becatu andiric confesazeco cer eguinbiardu?

E. Confesadezaque lengo demboretaco becatu mortalen bat eta [148] ciertoren bat; eta modu ontan confesadaiteque nayduen bezain maiz. †

G. Certaco da Comunioco Sacramentu Santisimoa?

E. Errecibizendugularic biarden disposicioarequin izandadien gure animarendaco sustentua eta aumentadezagun gracia.

[149] G. Cenbat disposicio biardire ongi comecazezo?

E. Bida: Bata animaren partetic eta berzia gorpuzaren partetic.

G. Animaren partetic cer biarda?

E. Estado graciozcoa<sup>32</sup>.

G. Eta gorpuzaren partetic?

E. Baru naturala.

G. Cer erranaydu estado [150] graciozcoac.

E. Duayela becatu mortalic gabe comecazera.

G. Cer erranaydu baru naturalac?

E. Eztezala yan eta edan gavezco amavietatic asi, eta viramonian comecatu artio.

G. Nor errecibizenda comecazendenian?

E. Jesu Cristo gure Yauna, aiñ errealki eta [151] siñezqui nola dagon Ceruan.

G. Eta hostia chiquibatian, edo andi batian errecibizenda gueyago.

E. Bietan berdin.

G. Cer dago Hostian?

E. Sacerdote Yaunac consagracionco itzac erran baño len, ogui pisca bat; Sacerdote Yaunac consagracionco [152] itzac erran ezquiero, Jesu Christoren Gorpuz preciosoa, aiñ errealki eta siñezqui nola dagon Ceruan.

G. Cer dago Calician?

E. Sacerdote Yaunac consagracionco itzac erran baño len, ardo chorta bat, vr tanta batequin: Sacerdote Yaunac consagracionco itzac erran ezquiero [153] Jesu Christoren odol preciosoa ain errealki eta siñezqui nola dagon Ceruan.

G. Eta biarden disposicionic gabe comecazendenac errecibizendu Jesu Christo gure Jauna?

E. Errecibizendu alacuac ere; baña provechuric gabe, baicic bere caltetan; bada eguitendu maldade bat icigarria.

[154] G. Eta comecaziarequin naituenac logratu provechu andiac, gracia andiac, eta bedicio andiac cer eguinbiardu oraiñ gueyago?

E. Comecatu baño len consideratubiardu ongi nor errecibizera duayen; prestatu-biardu iñalian ongi comecazezo; artaraco egundetzaque acto [155] Fedezcuac, Esperanzazcoac, eta Caridadezcoac; guero errecibitubiardu gure Jaun soberanoa alduen humildaderic, erreverenciariac eta errespetoric andienarequin, eta ondarrian comecatu ta ondoan emanbiartio esquer andiac eguindion favoriaz.

G. Egunian cenbat aldiz comecadaiteque?

E. Obraz, eta errealki [156] solamente beiñ comecadaiteque; baña deseyoz comecadaiteque anitz aldiz; deizenbaita Comunio espirituala; eta onequin ere irabacidaitez-que graciak, eta bedicio andiac.

G. Noiz, eta nola comecadaiteque espiritualqui, edo deseyoz?

E. Denboraric obrena da, Mezaco denboran; Sacerdotia comecazendenian. Orduan, eta berze edoceiñ ocasioz, asqui da Jesu Christo gure Jauna gana biotza alchazia, eta

(32) "graciozcoa" dio eta ez "graciazcoa". Hurrengo orrialdean, 1. paragrafoan "graciozcoac" dio berriz ere.

ciñez, eta biozetic erratia: Jesu Christo nere Jauna [157]. Nic sifestendut firmequi, eguiazqui, eta errealki Aldareco Sacramentu Sanduan arquizenzarella; eta naicinduzquet errecibitu cere Ama Santisimac, eta berze asco Sanduac, eta Santac errecibittu-zaitutzen garbitasunarequin, eta disposicioarequin berarequin. †

G. Certaco da Oliaduraren Sacramentua?

E. Iru gaucetaraco.

G. Ceiñ dire?

E. Lenbicicoa, quenzeco lengo vici gaistoaren manchac, eta arrestoac. Bigarrena, emateco animari indarra Demonioaren tentacioen [158] contra. Irugarrena, emateco gorpuzari osasuna, convenibada.

G. Eta bada obligacionic Oliadura Sandua errecibizeco?

E. Bay Jauna, becatu mortalaren azpian, persona larria izan ezquiero, eta eri peligrozcoa egon ezquiero.

G. Eta nola errecibittubiarda Oliadura Sandua?

E. Jaungoicoaren Gracian dagolaric. †

G. Certaco da Ordenaco Sacramentua?

E. Ordenazeco, eta consagrazeco Elizaren [159] Ministro dignoac, nola diren Sacerdotiac, Diaconoac, eta Subdiaconoac.

G. Certaco da Matrimonioco Sacramentua?

(E.). Ezconzeco, eta ezcondei gracia emateco, arequin vicidaitecen baquian, eta acidetzaten humiac Ceruraco.

G. Eta ezcondu biardutenac Matrimonio sandua ongui errecibizeco, cer disposicion an egonbiardute?

E. Eztute impedimenturic izanbiar: eta [160] egonbiardute Jaungoicoaren Gracian; berzenaz eguiñendute becatu mortala. †

### **Virtute theologalac dire iru.**

Fedia. Esperanza. Eta Caridadia.

### **Virtute Cardinalac dire lau.**

Prudencia. Justicia. Fortaleza. Eta Templanza [161].

### **Sentido corporalac dire vorz.**

Lenbicicoa, beguiaz icustia. Bigarrena, biarriaz adizia. Irugarrena, sudurraz vsmazia. Laugarrena agoz gustazia. Vorzgarrena, escuz vquizia.

G. Certaco emancittigun Jaungoicoac sentidoac, eta berze [162] gañeraco mienbro-ac?

E. Guciequin servizazeco aren Divina Magestadia.

### **Animaren potenciac dire iru.**

Memoria. Entendimentua. Eta Vorondatia.

G. Certaco emancigun Jaungoicoac Memoria?

E. Oroizeko artaz, eta eguintigun mersediaz.

G. Certaco emancigun Entendimentua?

[163] E. Jaungoicoa bera ezaguzeco, eta artan pensazeco.

G. Certaco emancigun Vorondatia?

E. Jaungoicoa bera maitazeco ontasun andiena bezala, eta lagun progimoa aren gatic.

### **Animaren etsayac dire iru.**

- Mundua. Demonioa. Eta Araguia.  
 G. Nola garaizenda Mundua?  
 [164] E. Menospreciazendirelariaren pompac, eta vanidadiac.  
 G. Nola garaizenda Demonioa?  
 E. Oracioz, eta humildadez.  
 G. Nola garaizenda Araguia?  
 E. Baruaz, eta mortificazioz.  
 G. Ceiñ da gaistoena orientatic?  
 E. Araguia.  
 G. Cergatic?  
 E. Cergatic Araguia eztezaquegu gueren ganic apartatu; baña mundua, eta Demonioa [165] bay.

### **Becatu Capitalac dire zazpi.**

- Lenbicicoa, Suberbia, Bigarrena, Avaricia, Irugarrena, Lujuria, Laugarrena, Ira, Borzgarrena, Gula, Seigarrena, Invidia, Zazpigarrena, Pereza.  
 G. Cergatic deizendire Capitalac aguiz comun [166] mortalac diren oriec?  
 E. Deizendire Capitalac, cergatic diren, berze anitz vicio hetatic sorzendiren zañac, iturriac, eta buruac bezala; deizia mortalac etzaye aiñ ongui eldu; bada anizetan eztire venialiac baicic.  
 G. Noiz dire mortalac?  
 E. Direnian Jaungoicoaren, edo lagun progimoaren Caridadiaren contra.  
 G. Noiz dire Caridadiaren contra?  
 E. Hequin austendenian Jaungoicoaren, edo Eliz-Ama [167] Sanduaren Mandamenturen bat gauza gravian.  
 G. Cer gauza da Suberbia?  
 E. Berziac baño gueyago izateco deseyo desordenatu bat.  
 G. Cer gauza da Avaricia?  
 E. Interesaren deseyo desordenatu bat.  
 G. Cer gauza da Lujuria?  
 E. Araguiaren gusto ciquiñen deseyo desordenatu bat.  
 G. Cer gauza da Ira?  
 E. Venganzaren deseyo [168] desordenatu bat.  
 G. Cer gauza da Gula?  
 E. Yateco, eta edateco apetittu desordenatu bat.  
 G. Cer gauza da Invidia?  
 E. Berzeren onaren damutasun bat.  
 G. Cer gauza da Pereza?  
 E. Obra onac eguiteco animoaren falta.

### **Zazpi vicio hoquen contra dire zazpi virtute.**

- Suberbiaren contra, Humildadía.  
 Avariciaren contra, Largueza.  
 Lujuriaren contra<sup>(33)</sup>, Castidadia [169].  
 Iraren contra, Paciencia.  
 Gularen contra, Abstinencia.

(33) Egia esan, *conta* idatzi du, -r- ahaztu egin zaiolarik.

Invidiaren contra, Caridadia.  
Perezaren contra, Diligencia.

### **Espiritu Sanduaren Donuac dire zazpi.**

Lenbicicoa, Yaquinduriaren Donua. Bigarrena, entendimentuaren [170] Donua. Iru-garrena, Consejuaren Donua. Laugarrena, Cienciaren Donua. Vorzgarrena, Fortalezaren Donua. Seygarrena, Piedadiaren Donua. Zazpigarrena, Jaungoicoaren veldurtasunaren Donua.

### **Espiritu Sanduaren Fructuac dire amavi.**

Lembicicoa, Caridadia. Bigarrena, Baquia. Irugarrena, Animo [171] andia. Laugarrena, Beraztasuna. Vorzgarrena, Fedia. Seygarrena, Continencia. Zazpigarrena, Gozoa. Zorcigarrena, Paciencia. Bederacigarrena, Ontasuna. Amargarrena, Mansedumbria. Amecagarrena, Modestia. Amavigarrena, Castidadia.

### **Bienaventuranzac dire zorci.**

Lenbicicoa, zorionecoac biotzez pobre [172] direnac; cergatic hequena izanenda Ceruetaco erreinua.

Bigarrena, zorionecoac mansoac; cergatic hec gozatuco dute lurra.

Irugarrena, zorionecoac nigar eguitendutenac; cergatic hec izanendire consolatuac.

Laugarrena, zorionecoac Yustiziaren gosia, eta egarría padecizendutenac; cergatic hec izaindire asiac.

Vorzgarrena, zorionecoac Misericordiosoac; cergatic hec ere [173] lograturucodute misericordia.

Seygarrena, Zorionecoac, biotzez garbi direnac; cergatic hec icusicodute Jaungoicoa.

Zazpigarrena, zorionecoac baquian vicidirenac; cergatic hec izanendire deituac Jaungoicoaren humiac.

Zorcigarrena, zorionecoac yusticia gatic perseguituac izatendirenac; cergatic hequena izanenda Ceruetaco Erreinua.

G. Cer gauza dire Bienaventuranza [174] hoc?

E. Dire Virtutien, eta Espiritu Sanduaren Donen obraric obrenac.

G. Nor dire biotzez pobre direnac?

E. Honraric, eta aberastasunic nai eztutenac, ez eta medianoac ere.

G. Nor dire mansoac?

E. Coleraric eztutenac, ez eta quasic aren movimenturic ere.

G. Nola gozatucodute lurra?

E. Beren buruen yabiac bezala.

G. Nor dire nigar eguitendutenac?

E. Gustoac, eta placerac vztentuztenac, [175] bay eta medianoac ere.

G. Nor dire iusticiaren gosia, eta egarría padecizendutenac?

E. Intencio osoarequin gauza gucietan zucen vidia eguitendutenac.

G. Nor dire misericordiosoac?

E. Aguitz vrricalzendirenac edocein persona generotaz.

G. Nor dire biotzez garbi direnac?

E. Beren pasione gucietan guztiz mortificatuac izatendirenac.

[176] G. Nor dire baquian vicidirenac?

E. Baquia conservazia procurazendutenac beren buruequin, eta baita berzequin ere.

- G. Nor dire iusticia gatic perseguittuac izatendirenac?
- E. Obra on gucietan firme daudenac, perseguittuac izanagatic ere.
- G. Cergatic hoc deizendire Bienaventuranzac?
- E. Cergatic hotan dagon Mundu ontaco dicha, eta berze mundoaren esperanza.
- M. Jaungoicoaren Seme Divinoac eramangaizala [177] denac arat. Amen.
- G. Guizonaren azquen fiñac cenbat dire?
- E. Lau Yauna.
- G. Cein dire?
- E. Eriozia, Juicioa<sup>34</sup> Infernua, eta Gloria. Hotan pensazen dagola zure memoria.
- G. Erioziac cer erran naidu?
- E. Gucioc illbiardugula, eta eztaquigula noiz, ta nola.
- G. Juicioac cer erran naidu?
- E. Gucioc yuntatubiardugula [178] Azquen Juicioco egunian Josafateco celain<sup>35</sup> con-tuac ematera gure Jaungoicoari gueren vicimodu guciaz.
- G. Infernuac cer erran naidu?
- E. Becatu mortalian ilzendirenac yuanendirela Infernura egun ta seculaco.
- G. Gloriac cer erran naidu?
- E. Jaungoicoaren Gracian ilzendirenac yuanendirela Cerura egunta seculaco.
- G. Persona larri bat ilzendenian, aren anima nora yuatenda?
- [179] E. Becatu mortalian baldinbadago, Infernura.
- G. Eta an noiz artio egonenda?
- E. Egunta seculaco. Becatu veniale cebait baldinbattu, Purgatoriora.
- G. Eta noiz artio egonenda?
- E. Bere becatuac purgatu artio. Batere becaturic ezpaldinbadu, ez mortalic, eta ez venialic, zucen zucena Cerura.
- G. Eta an noiz artio egonenda?
- E. Egunta seculaco.
- [180] G. Eta batec Cerura yuateco, eta salvazeco cer eguinbiardu?
- E. Guardatu puntualqui, eta cuidado andiarequin Jaungoicoaren Leguezco amar Mandantu sanduac.
- G. Eta Mandamentuac obequi, eta seguroago guardazeco ceñ dire obraric obrenac, eta valiosoena?
- E. Beñicpeiñ maiz, eta ongi confesa, comecatu: Guero ofrecitu Jaungoicoari goi-cetan egun artaco obra onac: Enzun Meza sandua egunoro, edo maiz albadaiteque: Errezatu [181] egunoro devocio andiarequin Arrosario sandua Ama Virgiñari; albadaite-que osoa, baitire iru partiac; edo beinzat iru partetatic bat: Libru onen batian leittu es-pacioarequin, eta atencioarequin cerbait gauz on: Egon Oracio mentalian, edo consi-deracioan cebait aldiz beinzat: Eta gucien gañian artu Confesore on bat, yaquinsua, virtuosoa, eta prudenta, eta atenditu, eta obedittu ari gauza gucietan, contu eguiten-duelaric, Jaungoicoari berari obedizendiola. †
- [182] G. Eta Linbora nor yuatenda?
- E. Batayatu gabe ilzendiren aurrac.
- G. Jaungoicoaren Gracia cerequin galzenda?
- E. Becatu mortalarequin.
- G. Eta cerequin cobrazenda berri?
- E. Confesio on batequin.
- G. Eta confesazeco moduric ezpaldinbada?
- E. Acto Contriciozco batequin.

(34) Lerro artean erantsi du *Juicioa*.

(35) Hola dio: "celain", "celayan" espero delarik.

- G. Eta Acto Contriciozcoa cer comprendizenda?  
 E. Jesu Christo nere [183] Jauna ongui erratia.  
 G. Persona batec mundu ontan izandezaquen desdicharic, eta desgraciariet andiena cein da?  
 E. Becatu mortalian egotia, eta erioziac artan arrapazia.  
 G. Eta ori cergatic izanenda desdicharic, eta desgraciariet andiena?  
 E. Cergatic egun ta seculaco galduric gueldizenbaita.  
 G. Non gueldizenda galduric?  
 E. Infernuco penetan.  
 [184] G. Eta Mundu ontan izandezaquen dicharic, eta fortunic andiena cein da?  
 E. Jaungoicoaren Gracian egotia, eta erioziac artan arrapazia.  
 G. Eta ori cergatic izanenda dicharic, eta fortunic andiena?  
 E. Cergatic eguna seculaco ongui gueldizenbaita.  
 G. Non gueldizenda ongui?  
 E. Ceruco Glorietan.  
 G. Cer gauza da Meza?<sup>36</sup>  
 E. Jesu Christo gure Jaunaren Pasio sanduaren memoria bat, eta errepresentacione bat, ceñetan ofrecizenzayo Jaun Divino ori bere Aita Eternoari sacrificioan vicien gatic, eta difuntuen gatic.

### [185] **Calvariotaco<sup>1</sup> Estacioac**

Lenbicicoric ciñatu, eta erranbiarda, Jesu Christo nere Jauna.  
 Naibaduzu ongui vici,  
 biarduzu Christau fiela,  
 Christoren Pasioa  
 biozian iduqui:  
 Maiz pensaziarequin  
 alaco eriozia.  
 Ay Jesus! dela posible  
 berriz zu ofendizia!

### [186] **Ofrecimentua.**

O! Nere Jesus maitagarria! Orai astera nuan Galvarioko vidian emanbiarttudan pauzu guciac Jauna, izanbeitez, zuc, Guruze pisuarequin cembilzala, Jerusalendic Galvarioko Mendira emancintuen pausuen icenian, eta Aita Sanduac devocio sandu au ongui eguitendutenei concedittiezten Indulgencia guciac irabazteco. Ortaraco escazeniduz Jauna, biotz gucitic, Eliz Ama sanduaren [187] behar, estutasun, edo necesitate gucien gatic. Irabaztendudan gucia izanbedi Jauna, nere obligaciozco Purgatorioko Animen sufragiotan. Emanzadazu Jauna, zure gracia, zuri ontan gustoa emateco. Amen.

### **Lenbicico Estacioa.**

Emen azotatu zuten gure Jauna, eta emancioten ilzeço sentencia.  
 Jesu Christo loturic,  
 dago emen bilusia;  
 [188] galduric iduria,

(36) Cf. 13. oharpena.

(1) Hola dio: "Calvariotaco" hemen, eta hola ere hurrengo orrialdean testuaren gainetiko bazterrean; baina 16 aldiz "Galvariotaco" bazter horretan bertan atal honen orrialdeetan barrena.

gucia llagaturic:  
 Vorz aldiz pasaturic  
 milletan azotiac.  
 Ay!<sup>2</sup> Jesus &a.

### Oracioa.

O! Gure Jesus Santisimoa! Gaizqui eguillia bezala loturic Juez gaistoen ichez iche erabillicinduzten, eta azotez vrratu ta ondoan, Pilatosec Guruzeco eriotz gogorrera sentenciaturcinduen gure Jaun Divinoa! Lagunzaguzu Jauna eramandetzagun zure icenian izatenttugun vide [189] gabe, charqueri, eta neque guciac; necaziarequin emen zurequin batian; irabacidetzagun Ceruco atseguiñac, eta Gloriac. Amen.

### Bigarren Estacioa.

Emen paratucioten Guruzia soñian.

Guruze pisu baten  
 carga soñ flacoetan,  
 ilzeoco bere artan,  
 paratucioten emen:  
 Pensa, zu cenbat zauden  
 [190] Jaungoicoari gostia!  
 Ay Jesus &a.

### Oracioa.

O! Gure Jesus Santisimoa! Gu gueren etsayeen escuetara erori ezguindecen, cere etsayen escuetara cere burua vtzicenuen, eta gu becatuen petic aterazia gatic gure becatuac eguindizuten Guruze pisua cere gañian artucenuen Jaun misericordiosoa! Iguzu cere lagunza, eta gracia, gure obenac, eta culpac biarduteneque, eta castigoen guruzia eramandezagun [191] gogo onarequin, eta vorondate osoarequin, gauden guero Ceruan zurequin batian nequeric gabe, eta atseguiñ, ta gustoz beteric secula guciac. Amen.

Pater noster &a.

### Irugarren Estacioa.

Emen eroricen lenbicico aldian.

Cargac icaraturic  
 gucia dezaquena,  
 Ceruac eguinttuena,  
 lurrera eroriric!  
 Chutizeco lagunic  
 eztuzu Jaun neria!  
 Ay Jesus. &a.

### [192] Oracioa.

O! Gure Jesus ona! Andia da nonbait, gure culpa, eta becatuen Guruzia! Bada ero-riacidu bazterrak gabeko indarrac dittuen Jaungoico Guizon bat! Nola otegauzquite gu

(2) Letra meheagoz dago idatzia *Ay! Jesus &a.*, eta baita estazio bakoitzen bukaeran ageri den *Pater noster &a.* ere.

(3) *Amen* hitzaren ondotik, eta beti beste lerro batean, ipini ohi duen *Pater noster &a.* ahantzi egin zaio hemen ipintzea.

culpa oriec, orlaco indarric eztugu criatura miserable hoc? Iguzu, Jauna, horien itsustasuna ezaguzeco biardugun arguitasuna, eta gracia, garbidezagun nigarrez, hec loittuditiguten anima. Amen.

Pater noster &a.

**[193] Laugarren Estacioa.**

Emen arquittuzuen Maria Santisimac bere Seme maitia.

Ona non topatucen  
Ama Sanduarequin:  
nolaco penarequin  
Maria gueldittucen!  
Aren atzian guacen;  
O! Ceiñ guciz tristia!  
Ay Jesus. &a.

**Oracioa.**

O! Aingueruen Erreguiña [194] garbia! Munduan izandudan Semeric oberena galzera zuacin Ama Santisima! Orra non datorren Guruze pisu bat soñian duela zure Seme maitagarria. Ezpaldinbaduzu nai odolduric dena, eta icerdiz, eta loyez betia icustiarequin erdiradaquizun biotza, etziozula beguiratu; edo beguirazenbadiozu, izanbedi berari escazeco, gueren nequiac ongwi eramateco, digula gracia, eta guero betico Gloria. Amen.

Pater noster &a.

**[195] Vorzgarren Estacioa.**

Emen lagunducion Simon Cirineoc Guruzia eramatzen.

Gueyago pena gatic  
emanciosten lagun bat;  
viciric Galvariorat  
allegazia gatic:  
Median ilzia gatic  
Gure Jesus maitia.  
Ay Jesus. &a.

**Oracioa.**

O! Gure Jesus dulzia! [196] Galvarioco Mendira allegatu gabe Guruziaren azpian azqueneco atsa, eta vicia emancentzan beldurrac, eta Guruzian itzez yosiric eramandaitequen nequeric, eta tormenturic andienian zu icustia gatic, emancizutene laguntako Simon cerizone guizon bat. Argaitzatzu bada, Jauna, gu ere cere laguntako, vide gogor ortan, sargaitecen guero zurequin batian Guruze ortan irabacibiardiguzun Ceruco Glorian. Amen.

Pater noster &a.

**[197] Seygarren Estacioa.**

Emen garbittucion Veronicac icerdia.

Zagon bada beteric  
odolez arpeguia;  
gueldittuda gucia  
oyalian marcaturic:

Bere pagua arturic  
duaye contet andria.

Ay Jesus. &a.

### **Oracioa.**

O! Gure Jesus Santisimoa! Guruze pisuarequin [198] cebilcenian, erorzencizaizun odola, eta icerdia garbizeco, Veronicac ecarricizun oyalian, cere figura, eta imagina vtzicenion gure Jaun Divinoa, eta nequez betia. Utzazu, Jauna, Gure biozeten ere zure neque gucien señalia, oroigaitecen zuri zordizugunaz, eta gauden beti zuri esquerrac ematen emen, ta Ceruan. Amen.

Pater noster &a.

### **Zazpigaren Estacioa [199].**

Emen eroricen gure Jesus bigarren aldian.

Erorzena lurrera  
berriz Jainco guria;  
nola becataria  
emendazen etzara?  
Zuc egunduzu bada  
aiñ pisu Guruzia.

Ay Jesus &a.

### **Oracioa.**

O! Gure Jesus maitia! Guruzia eciñ eramanez berriz erorzenzaren Jaun Divinoa! Orduan [200] artucinttu en ille tiraca, eta ostico itsusiac, eta atrevittuac gatic, iguzu, gracia, ardetzagun guc zure icenian lurrian eguitenzaizquigun vide gabe guciac, gauden guero zu icustenzaitugula atseguiñaz, eta gustoz beteric Ceruan. Amen.

Ay Jesus &a.<sup>4</sup>

### **Zorzigarren Estacioa.**

Emen eracutsien Jesusec nigar [201] eguiten Jerusalengo alabei.

Bada eracustenzaizu  
emen nigar eguiten;  
ezpaduzu icasten,  
zuc biotzic eztuzu:  
Edo aiñ gogor daucazu  
nola dagon bronzia.

Ay Jesus &a.

### **Oracioa.**

O! Gure Jesus dulzia! Flaquia, cargaz, eta nequez beteric cebilzanian, necatua ezpaceunde bezala, Jerusalengo alabei yaquinbiarzutena [202] eracutsibaicenien; eracutsizaguzu Jauna, guri, cer eguinbiardugun, Ceruco vidian ez vtsic eguiteco, eta vide ontan izanbiarttugun, neque guciequin iraundezagun zure gracian eriozeco orduraño, eta iguzu daramazun neque andia gatic, ortaraco biardugun lagunza, eta gracia. Amen.

Pater noster &a.

### **Bederazigarren Estacioa [203].**

Emen eroricen irugarren aldian gure Erredentoria.

(4) *Pater noster &a.* ipini beharrean, *Ay Jesus &a.* idatzi du.

Iru aldiz erori, ta  
escua ematen eztiozu?  
Ceiñ cruela Jesusequin,  
ceiñ cruela zaren zu!  
Becatua naigoduzu<sup>5</sup>;  
o! zure alque gabia!

Ay Jesus &a.

### Oracioa.

O! Jesus Santisimoa! Becatuen azpitic atera [204], eta yequigaitecen, irugarren al-dian lurrera zaituen Guruziarequin zabilzan Jaun Divinoa, eta gure gatic aiñ necatua! Lagunzaguzu, Jauna, lenbait len, becatuen carga vtziric, arindezagun Guruze pisu ori, eguinttugun gueren culpen damu andi batequin, eta irabacidezagun emendic aiziña zu biotz guctic maitatzeco gracia. Amen.

Pater noster &a.

### Amargarren [205] Estacioa.

Emen quenducitiozten bere soñecoac.

Llagac ere, bilustian,  
emen zaizquierdo berrizen;  
etzaizu erdirazen  
biotza, au pensazian?  
Ambat yendeen aurrian  
o! Jesusen alquia!

Ay Jesus &a.

### Oracioa.

O! Jesus Santisimoa! Soñecoric gabe cere burua icusicenuenian, [206] izanducenuen lotsa gatic, escazendizut, Cerua Izarrez, ta lurra lopez veztizenduzun gure Jaungoico Soberanoa! veztigaizatzula Graciaren, eta virtuteen soñeco ederrarequin, yargaitecen egunaren<sup>6</sup> batian Ceruco eztay garbietaco maian, Ainguera, eta Sandu, eta Santa gu-cien artian. Amen.

Pater noster &a.

### Amecagarren Estacioa.

Emen itzez yosizuten gure Jauna.

[207] Bi ladronen artian  
Jesus parazendute;<sup>7</sup>  
zaticazen ere vte<sup>8</sup>  
itziequin yosizian;  
Zuc culpa berrizian,  
berrizenda colpia.

Ay Jesus. &a.

### Oracioa.

(5) Hola idatzi du: *naigo* eta ez *nayago*.

(6) Espero den *egunen* egin beharrean, *egunaren* jarri du.

(7) Ez dakigu zein den azkeneko idazkera: "ilzez" ala "itzez". Hurrengo orrialdean, laugarren bertso lero-an "itziequin" dio; 208.ean ere "itziequin"; eta 210.ean "itzez".

(8) Hola dago: *vte*, *duteren* partez.

O! Jesus inocentia! Pensadaitezquen nequeric andienequin ecarriduzun Guruzian crucificatur arquizenzaren gure Jaun Soberano! Gure becatuac [208] eguidizuten guaze gogorra gatic, eta ortan deramazquitzen neque penac gatic, eguzu Jauna, gueldadiela gure biotza, eta gure anima pena, eta neque horien damuzco itziequin yosia; berze munduraño eztugu nai Jauna zurequin necazia berze atseguiñic. Amen.

Pater noster. &a.

### **Amavigarren [209] Estacioa.**

Emen ilzen Guruzian gure Erredentoria.

Lurra da icarazen,  
ilzian Jaun andia;  
illunzenda Iguzquia,  
arriac arrallazen;  
eta alare berazen  
nola ezta biotz suria?

Ay Jesus. &a.

### **Oracioa.**

O! Gure Jesus Soberano! Oñetaco, eta escuetaco zaiñ ezurrac [210] itzez vrraturic, Gorpuz gucia odolez, eta nequez betia ceneducala, eta anima penaz, eta dolorezco itsaso bat eguiñic, azqueneco atsa gure gatic Guruziaren guaze gogorrian emanenuen Jaun maitagarria. Badaquigu, Jauna, cere neque gucion artian ezgaittuzula gogotic vtzi. Eztugu guc zuri nondic eman zordizuguna; guc emandezaqueguna, eta gaur danic gogotic emanendizuguna, da, gure gatic eramanduzun nequiaren [211] pena andi bat. Arzazu bada, Jauna, zure amorioa gatic, eta gure becatuen satisfaciolan. Amen.

Pater noster &a.

### **Amairugarren Estacioa.**

Emen gueldittuen penaz, eta pesalumbrez beteric,  
bere bacartasunian Jesusen Ama maitia.

Josepec erautsiric,  
[212] bere Amac arzendu  
Gorpua, ta icustendu  
(declarazeco ezta itzic!)  
bere besotan illic  
bere Seme maitia.

Ay Jesus &a.

### **Oracioa.**

O! Ceruco Erreguiña Soberana! O! Jesu Christoren Ama dichosa, eta Santisima! Gure becatuac quendudizuten cere Seme bacarra illic icusicenuenian, norc nai daqui, gure Ama maitia, [213] andia ecin gueyagoz izanducela zure biotzeco illuntasuna, eta sentimientua. Damuz gaude bada, gu ere Señora Santisima, ceren gure gatic galduzun, guciac baño gueyago valioduen, eta ecin gueyago maite duzun cere Seme Divinoa. Cere neque andi orren gatic, iguzu gracia, mundu ontan vicigaitecen becatu berriequin zure penac, eta zure Seme [214] maitiaren eriozia berritu gabe. Amen.

Iru Ave Maria, Maria Santisimaren honran, ta alabanzan.

### **Amalauggarren Estacioa.**

Emen orzizuten Jesusen gorpuz Sandua.

Gorpuza Jaunarena  
dago emen orziric;  
Pasioaz oroitturic  
bego ongui ill naiduenac. [215]  
Devocioric obrena,  
maiz ontan pensazia.  
Ay Jesus &a.

**Oracioa.**

O! Jesu Christo gure Jauna! Cere Gorpuzian eramancintuen neque andi, eta erioze gogorraren ondoan, Gorpuza bere Guruzian ill, ta illen sepulturara eramancezatela vztiarequin, Guizon eguiazcoa ciñela eracutsicenuen gure Jaungoico Soberanoa [216]. Gure gatic eramanttzun neque andi, eta eriozia gatic, escazendizugu, izandaitecela gure biotzac, comecazengaren gucietan, zure sepultura garbi bat bezala, vtzigaitatzun orduan cere graciaz, eta amorioz betiac, orrequin seguro irabacidezagun seculaco Gloria. Amen.

Pater noster &a.

Penetan lagun denac,  
Glorian ere biardu:  
Christo emen icusidu  
[217] vizturic Magdalena:  
Guero gozo naiduenac,  
artu orai penazia.  
Ay Jesus &a.

**Azqueneco Oracioa.**

O! Gure Jesus dulzia! Necatua cebilzanian, zure nequien sentimentuz, eta bere becatuen damuz beteric zure ondotik ibillicen Magdalenari [218] erresucitatu, ta beila aguertuciñen, Jaun maitagarria. Naiguenuque, Jauna, gu ere emendic deizengaituzunian zure arpegui ederra Ceruan icustia gatic, zure nequiac, eta Pasio sandua gogoan dittugula garbiqui vici. Au da, Jauna, gure biozeco aleguin guciarequin eguitia deseyazenduguna: zure naya, eta zure vorondate Sanduac gauza gucietan. Iguzu [219] Jauna, ontaraco biardugun gracia. Amen.

Purgatorioco Animen favoretan Pater nosterrequin Ave Maria.

**Jesu Christo gure Jaunaren Pasio sandua<sup>1</sup>.**

<sup>1.</sup>  
Atozte onat Yendiac;  
atozte aditzera:  
cer duayen pasazera<sup>3</sup>  
Ceruco Erreguiac:

Guruzia, azotiac,  
[220] gure gucien gatic.  
Nola<sup>4</sup> zaute beguiac,  
nola zaute beguiac  
bota gabe nigarric?

(1) Oiergiko (O) parroquia-etxearen dagoen eskuidatzia honela ematen du izenburua: "Jesu Christoren Pasio Sandua versoan (sic)". N.B. Hemengo oharpen guztiak O.koaz ari dira.

(2) Okoak ez du ipintzen zenbakirik bertsoen aurrean.

(3) "pasatzera".

(4) Lehenengo bertsoaren ondotik hau ipini zen lehenbizi: *Negar egunidezagun / Jesusen penengatic*. Hurrengo bertsoen ondotik *Negar &a.* jarri zen; eta azkeneko bertsoaren ondotik *Negar egunidezagun / Jesusen penengatic* berriz ere.

Beste esku batek, hori ezabatu eta *Nola zaute... nigarric* ipini zuen. Esku honek idatziak dira, gure ustez, *Gure Jaun Soberanoa...* eta *Misionisten Cantuac...*

Azpimarra dezagun bidenabar batek "*Negar*" dioela, eta "*nigarric*" besteak.

2.

Pilatosen ichian<sup>5</sup>  
azotatubaizuten<sup>6</sup>  
odolian<sup>7</sup> vtzizuten,<sup>8</sup>  
vorz<sup>9</sup> milla eman ezquiero:  
Ta eztuzu<sup>10</sup> damu guero  
becatu eguiña gatic?  
Nola zaute &a.

3.

Aranzezco<sup>11</sup> Corona  
buruan sarzendio  
Pilatesec, ta di-o<sup>12</sup> :  
ona, Jaunac, Guizona:  
[221] Cergatic den aiñ ona,  
librabedi ilzetic.  
Nola zaute &a.

4.

Baña Yudo gaistoac  
ilzia deseatzendute<sup>13</sup> ;  
oyuz escazendute;  
o! Diabruaren<sup>14</sup> semiac!  
Eguinzaizquio beriac  
invidia solla gatic<sup>15</sup>.  
Nola zaute &a.

5.

Enfin<sup>16</sup> illic naidute  
icusi Guruzian,  
ta ala aren soñian  
beila<sup>17</sup> parazendute:  
Ta socaz lozendute  
lepo, ta escuetatic.  
Nola zaute &a.

[222] 6.

Ea Ama Sandua!<sup>19</sup>  
Erreña<sup>18</sup> Cerucua<sup>19</sup>,  
zure sabelecoa<sup>20</sup>  
icusazu, cer duen:  
Cer aterazenduen

(5) "echian".

(6) *azotatu batzuten*: bi hitzetan zatiturik.

(7) Lehenbizi "odolean" ipini zen.

(8) "vzizuten".

(9) vorz ez da ageri, hautsirik bait dago papera.

(10) "teztuzu".

(11) "Aranazzco".

(12) "dio": marratxorik gabe.

(13) "deseazendute".

(14) "Diabruuen".

(15) "sollagatic".

(16) *Enfin*.

gure becatuetatic<sup>21</sup>.  
Nola zaute. &a.

7.

Betor Señora ori,  
betor consolazera;  
icerdien quenzera  
bere Seme Jaun oni:  
Betor alegrabedi,  
viciric dagolaric.  
Nola zaute &a.

8.

O! Nere Seme ona!  
[223] cer<sup>22</sup> eguinduzu ontaco?  
onberze penendaco<sup>23</sup>  
otezara gaistoa?  
Baña oteda iñongoa  
Jesus zu bezain<sup>24</sup> onic?  
Nola zaute &a.

9.

Borrero cruel oyec  
zure edertasuna,  
tormentuz, eta burlaz  
dena itsustendute:  
Ta parazenzaittuzte<sup>25</sup>  
choll<sup>26</sup> figura galduric.  
Nola zaute. &a.

10.

Ceruac espantazen  
dire au icustiaz,  
[224] osticatua izatiaz,  
izanic Yaun, ta Yabe:  
Ta ceren vra gabe  
iñorc eztu viciric.  
Nola zaute. &a.

11.

Proseguizendu bada,

(17) Lehenbizi "berla" idatzi du eta gero "beila" egin.

(18) Lehenbizi "Erreña" idatzi da, gero "Erreñña" eta azkenik "Erreguña".

(19) "Cerucua".

(20) "Sabelecuá".

(21) "becatuetatic".

(22) *cerez* da ageri, papera hautsirik bait dago.

(23) "penendaco".

(24) "bezain".

(25) "parazenzaittuzte".

(26) "choill".

Jaunac<sup>27</sup> bere vidian;  
eztezan Guruziac  
choll<sup>28</sup> rendittu<sup>29</sup> berian:  
Lagun bat yornalian  
ematendiotelaric.

Nola zaute. &a.

12.

Enfin<sup>30</sup> allegazenda  
trabajuaz beteric,  
gutziz afluxitric<sup>31</sup>,  
Galvarioco<sup>32</sup> gafiera:  
[225] Icerdi anitz<sup>33</sup> lurrera  
isurzenduelaric.

Nola zaute. &a.

13.

Guruzian zabalic  
beila parazendute,  
ta neurri arzendute  
zuloac eguiteco<sup>34</sup>:  
Itzi-equin<sup>35</sup> yosteco  
escu, ta oñetatic.

Nola zaute. &a.

14.

Astendire<sup>36</sup> colpazen  
itze<sup>37</sup> hequen<sup>38</sup> sarceco,  
ta amaren biotzeco<sup>39</sup>  
odola icarazen:  
Baitute traspasazen  
itziequin<sup>40</sup> zañetatic.

Nola zaute. &a.

[226] 15.

O! Biotz<sup>41</sup> gogorenac  
Verdugo cruel hequenac!  
Nola itten<sup>42</sup> asiciren

(27) Lehenbizi "jaunac" ipini du eta gero "Yau-nac", hizki haundi eta y grekoia.

(28) "choll".

(29) "renditu".

(30) *En fin*.

(31) "afluxitric".

(32) "calvarioco".

(33) Lehenbizi "auniz" eta gero "anitz".

(34) "egiteco".

(35) "Itziequin".

(36) *IAstendire:* papera hautsirik.

(37) "itzi".

(38) *equen*.

(39) "biozeco".

(40) "itzequin".

oraïñ<sup>43</sup> erranendena?  
Ceiñ andia cen pena  
artuzuena artatic!  
Nola zaute. &a.

16.

Jesus berze aldera<sup>44</sup>,  
itzuliaztendute<sup>45</sup>,  
itziac macurzenttuzte<sup>46</sup>,  
guisartan agoz bera:  
Odol gucia lurrera  
isurzendu-elialic<sup>47</sup>.

Nola zaute. &a.

[227] 17.

Gorazendute guero  
Guruze berarequin,  
hay! cer tormenturequin!  
chutiric parazeco:  
Obequi frincazeco<sup>48</sup>,  
colpez vztevtelaric<sup>49</sup>.

Nola zaute &a.

18.

Itzez yosiric dago  
Jaungoicoaren Semia;  
gueigo padecizia  
deseyo<sup>50</sup> vtsez<sup>50</sup> dago:  
Iguesi<sup>51</sup> eztugu oraño  
iñen becatuetatic<sup>52</sup>.

Nola zaute &a.

19.

Argatic erratendu:  
[228] egarria du-ela<sup>53</sup>;  
ta Verdugo cruelac  
ozpiña ematendio;  
Pozoya nastendiote<sup>54</sup>,

(41) "bioz".

(42) "iten".

(43) "orain".

(44) *itzuli aztendute*.

(45) "macurzenttuzte".

(46) "isurzenduelaric".

(47) Lehenbizi "frincazeco" eta gero "fincazezo".

(48) "vztevtelaric".

(49) Lehenbizi "deseo".

(50) Lehenbizi "vtsez".

(51) Ematen du "iguesi" ipini duela eta gero lehenengo -e-hori ezabatu.

(52) "becatuetatic".

(53) "duela".

(54) *Pozoya na/sten diote:* lehenbiziko zatia hautsirik.

edandezan<sup>55</sup> artatic.  
 Nola zaute. &a.  
 20.  
 Enfin<sup>56</sup> tormentu vtsez<sup>57</sup>  
 illic an gueldizenda;  
 dena entregazenda  
 bere Aita maitiari:  
 Ongui pagazeco ari<sup>58</sup>  
 gucien zorren gatic<sup>59</sup>.  
 Nola zaute &a.  
 21.  
 Pasatudire Yaunac  
 Jesusen oñaciac;  
 baña ez Ama maitiac [229],  
 laburrenac eztauzqui:  
 Traspasaturic dauzqui<sup>60</sup>  
 ezpatac biozetic<sup>61</sup>.  
 Nola zaute. &a.

22.  
 Tristeric gueldizenda  
 pesalumbrez beteric,  
 icustenbaitu illic  
 bere Seme maitia:  
 Bere vici gucia  
 arc berac ceuquclaric.  
 Nola zaute. &a.  
 23.  
 Araguizco biotzac<sup>62</sup>  
 guc dauzquigun ezquiero,  
 berazgaiten entero,  
 [230] bada arriac inzuten:  
 Elcar puscatuzuten,  
 eracustia gatic<sup>63</sup>.  
 Nola zaute &a.

### Becatu<sup>1</sup> mortalaren<sup>2</sup> gaistoa, eta Graciaren ona.

Virgiña Ama Santa,  
 ez permitititu<sup>3</sup>,  
 ni becatuan<sup>4</sup> vici,  
 ta ez<sup>5</sup> acabatu.

[231] 1.  
 Becatu mortala  
 da animarenzat  
 vicien quenzeco  
 pozoya puscuat.  
 Virgiña &a.

2.  
 Gañetic gustoso,  
 barrendic miña,  
 icigarri onec  
 daucan gucia.  
 Virgiña &a.

3.  
 Betico nigarrac<sup>7</sup>  
 ecarzendittu<sup>8</sup>  
 gusto batendaco<sup>9</sup>,  
 pensazenbaugu<sup>10</sup>.

Virgiña &a.

4.  
 Ezta iñon otsoric<sup>10</sup>,  
 [232] tez Basurderic,  
 becatu mortala  
 bezaiñ<sup>11</sup> itsusic<sup>12</sup>.  
 Virgiña &a.

5.  
 Ez sugueric ere,  
 eta ez<sup>13</sup> Sierperic,  
 arc daucan pozoya  
 iñorc daucanic.  
 Virgiña &a.

(55) /edanz/ezan: hautsirik.  
 (56) *En fin.*  
 (57) Lehenbizi “vsez”.  
 (58) “zorregnatic”.  
 (59) “dauzqui”: -uu- bikoiztuarekin.  
 (60) “biozatic” ipini du lehenbizi.  
 (61) “biozac”.  
 (62) “eracustiagatic”.

(1) /Becatu: papera hautsirik Oieregikoan.  
 N.B. Hemen ipintzen ditugun oharpenak Oieregin  
 aurkitutako eskuidatziri dagozkionak dira.

(2) *mortalaren:* papera hautsirik.  
 (3) “permititu”.  
 (4) “becatuen”.  
 (5) “tez”.  
 (6) Bertsoen aurrean ez du ipintzen zenbakirik.  
 (7) “negarrac”.  
 (8) “ecarzendittu”.  
 (9) *pensazen baugu*.  
 (10) “osoric”.  
 (11) “becat”.  
 (12) “isusic”.  
 (13) *etez:* hitz bat eginik.

6.  
Ez Satanas ere,  
eta ez<sup>14</sup> Diabururic  
Infern gucian  
aiñ icigarric.

Virgiña &a.

7.

Ez sarnaric ere,  
eta ez<sup>15</sup> lepraric,  
becatu mortala  
bezalacoric.

Virgiña &a.

[233] 8.

Enfiñ<sup>16</sup> gaitz<sup>17</sup> guciac  
yuntoan<sup>18</sup> dauzqui,  
ta bera da gaitza  
deus baño obequi.

Virgiña &a.

9.

Ea bada Yaunac<sup>20</sup>,  
cer arigara?  
Becatua guero  
iñen oteda?

Virgiña &a.

10.

Juicioric eztugu  
iñorc izanen,  
Gracia artu, eta  
ezpadugu vtzen.

Virgiña &a.

11.

Edertasun onec  
[234] eztu pareric,  
Jaungoicoa bera<sup>21</sup>  
ecen berzeric<sup>22</sup>.

Virgiña &a.

12.

Naidu-enac<sup>23</sup> bada,  
erosi merque,  
Sacerdoteen ganic  
arbez devalde.

Virgiña &a.

13.

Damutasun ongu  
izan ezquiero,

(14) *etez* berriz ere.

(15) *etez* hemen ere.

(16) *En fin.*

(17) "gaiz".

(18) "yuntoan".

(19) "gaiza".

(20) "jaunac".

(21) *Jaungoicoa bera*: hautsirik.

(22) *berzeric*: hautsirik.

ta animo firmia  
emendazeco.

Virgiña &a.<sup>24</sup>

14.

Confesazenbada  
condicio hoquin<sup>25</sup>,  
[235] artucodu Gracia  
barcacioarequin.  
Virgiña &a.

15.

Gracia artu, eta<sup>26</sup>  
nola ederzenden<sup>27</sup>,  
iñorc eztu ongui  
beñere erranen.

Virgiña &a.

16.

Ainguueruen pare  
eguitendela,  
erratenbadu ere,  
ori asqui ezta.

Virgiña &a.

17.

Serafiña<sup>28</sup> bera  
dirudiela,  
erratenbadu ere,  
[236] ori guti da.

Virgiña &a.

18.

Iguzquia bera  
bezaiñ ederra,  
erranbeza, baño  
ori deus ezta.

Virgiña &a.

19.

Urria<sup>29</sup>, ta cillarra  
aipadetzaque;  
Graciaren aldian  
icatzac dire.

Virgiña &a.

20.

Jaungoicoac bada  
digula enfin,  
ilzeço vidia  
noizpait arequin.

Virgiña &a.

(23) "Naidu-enac".

(24) Hemendik aurrera ematen du &." dagoela  
eta ez &a.

(25) oquin.

(26) (*Gracia artu, eta*): hautsirik.

(27) (*nola elderzenden*): hautsirik.

(28) "Serafina".

(29) (*Urria*): hautsirik.

**[237] Cer significazenduten  
Mezaco ceremonia sanduac.  
Eta particularqui solemnidade guciarequin  
ematendenian.**

(Manogito de Flores del P. F. Ju[a]n Nieto)<sup>1</sup>.

Meza solemnia cantatua bere Diaconoarequin, eta Subdiaconoarequin celebratu-biardenian, Sacerdotia, eta bere lagunac sacristian erreveztittu, eta [238] prestatu ta on-doan, Corucuac astendire cantazen Meza; eta artaraco cantazendute Introitoa deizen-den Mezaren principio bat. Eta cantazendute bi aldiz; significazeco Jesu Christo gure Jaunaren baitan arquizendiren bi Naturalezac: bata, Jaungoicotazunaren Naturaleza, eta berzia, Guizontasunaren Naturaleza.

Introitoa cantazendut bitartian, aterazendire Sacristiatic erreveztituric Meza sandua celebrazezo lenic Subdiaconoa, au da, Epistola cantatubiarduena. [239] Eta onec significazendu; eta errepresentazendu Antiguozco Legue zarra.

Aren ondotic aterazenda Diaconoa, au da, Evangelioa cantatubiarduena. Eta onec significazendu Jesu Christo gure Jaunac bere Evangelio sanduaren medioz munduari ecarrion Legue berria.

Azquenik aterazenda Meza celebratubiarduen Sacerdotia. Eta onec errepresentazendu Jesu Christo gure Jauna bera; au da, nola Jaun Divino au, mundo Salvazalia ateracen mundura Ama Virgiñaren sabletic bere Pasio Santisimoarequin [240] mundua erredimizera.

Venerable<sup>2</sup> Maria de la Antigua deizenden Santaren opinioan ilzen errespetozco emacume batec dio: Edozeiñ Sacerdote Sacristiatic Meza celebrazea aterazendenian, emezorzi Serafiñec acompañazendutela Aldareraño: an laguzzendiotela Mezaco Sacrificio Sanduan: guero Meza acabatu ta ondoan, guisa berian acompañazendutela Sacris-tiaraño, eta laguzzendiotela esquerrac ematen. (lib. 3. cap. 11.)

Meza solemnia celebrazezo [241] Sacristiatic ateradiren irurec Aldarera allegazendi-ren bezala, Sacerdotiac erditic eguitendio Aldariari correspondizenzayon erreverencia, nolaco Aldaria den; Sacramentu santisimoa dagon Aldaria baldinbada, belauricatucoda; baña berze edoceiñ Aldare baldinbada, eguiñendio buruz. Sacerdotiac eguitenduen lembicico erreverencia onec significazendu, nola Jesu Christo gure Jaunaren animac, gure Jaungoicoac criatuzuenian, beila adoratzuzen Trinitate Santisimoa, esquerrac ematencitiolaric eguiñzion favore andiaz; criatubaizuen [242] libre becatutic, eta becatu eguiteco peligrotic: beila danic eguinbaizuen bienaventuratura.

Guero eguitendu Guruze bat copetatic bularretaraño; adiaztera emateco, eta significazeco, Meza sandua celebrazea duayela memoriataco, nola Jesu Christo gure Jauna izanducen Guruzian crucificatua.

Guruze au eguitendu Sacerdotiac escu zabalarequin, pasazenduelaric escua, erran-den bezala, copetatic bularretaraño, significazeco, Jesu Christo gure [243] Jauna mundu au salvazera etorricenian, yeusicela Cerutic lurrera Aitac, eta Espiritu Sanduac compa-níja eguitenciotelaric. Beila eramatendu escua ezquerreco soñera, ceñetan baitago significaturic mundu ontaco vici miserable au, eta pasazendu escuñeco soñera; ceñetan baitago errepresentaturic Ceruco Gloria; significazeco, ala izanengarela gu ere pasa-tuac, gueren partetic iñala eguiten baldinbadugu, Guruziaren virtutia dela medio [244], eta gure Jaun Divinoaren Pasio Sanduaren meritoac direla medio, mundu miserable ontatic Gloria dichosa artara.

(1) Aipatzen den *Manogito de Flores* liburua 1776. urteko da.

(2) Paragrafo oso hau parentesi antzeko baten barruan dago, ezabaturik balego bezala.

Guero erratendu Sacerdotiac David Profetaren Salmo bat, astenbaita Judica me Deus aldzca lagunzaliequin batian; ceñetan adiazteria ematenbaita, nola munduko Salvazaliac guizontasunaren partetic minzazendelaric Aita Eternoarequin, ezaguzenduen Aita Eternoa Jaungoicotaco, eta nola escazendion asistidezola [245] bere gracia sandua-requin.

Guero choll curturic erratendu Sacerdotiac Confiteor Deo: significazeco, nola Jesu Christo gure Jauna mundu au salvazera etorricenian, ateracen guretako fiana bezala gure becatuac pagazeco, eta gure becatuac ezagutucituen bere becatu propiotaco.

Lagunzaliarequin<sup>(3)</sup> batian erranbiartuen oracioak erran ta ondoan Sacerdotia yuata Aldarera, eta erdian Aldariari [246] musu eman, ta ondoan, Meza cantatua solemnia baldinbada, prestazendu insensua; significazeco, nola gure Jesus Divinoa bere Ama Santismaren sabelian zagolaric, yuanzen San Juan Bautistaren Guratsoen ichera; eta San Juan Bautista berriz baizagon bere Ama Santa Isabelen sabelian, nola Jaun Divino arc visitatzuen Sandu glorioso vra amorio andiarequin; eta absolvittuzuen, eta garbitzuzuen becatu originaletic [247] bere Gracia sanduarequin.

Insensua prestatu ta ondoan, eta bedeicatu ta ondoan, ematendio Aldariari Insensarioarequin; significazeco, Mezaco Sacrificio Santisimoa celebrazen astiarequin, asicen bezala Jesu Christo gure Jaunak bere Pasio Santisimoa pasatu ta ondoan, eta Ceruetara igan ta ondoan, gueldittucirela, eta acabatucirela antiguozco Legueco animalien Sacrificio guciac; eta hequen [248] gucien lecuan celebrazendela orai Christiandadian Mezaco Sacrificio sandua; cergatic hec guciec etziren berzeric, baicic onen izala; onen figura bat, edo errepresentacione bat.

Guero astendu Sacerdotiac Meza, eta artaraco erratendu Introitoa deizenden Mezaren principioa, ciñazendelaric bera bacarric, eta ez aren lagunac; significazeco, solamente Profetei errevelatuciela gure Jaungoicoac [249] Jesu Christoren Pasio Sanduaren Misterio sagratuac.

Guero erranttu Sacerdotiac Kyrieleysonac. Significazendute, nola escazenzayon gure Jaungoicoari piedad, eta misericordia. Meza cantatua solemnia denian cantazendire espazio andiarequin significazeco, dembora andian, eta aguitz gogotic egondudela Limboan ceuden anima yustoac clamazen, eta Jaungoicoari misericordia escazen, eta bigalizcela lenbait len bere Seme [250] Divinoa mundua erredimizera. Eta errantdire bederazi aldz significazeco, nola bederazi illabetez egondu cen Jaun Divino au bere Ama Santismaren sabelian yayo baño len.

Kyrieleysonac Coruan ya cantatutuztenian, baduaye Sacerdotia Aldariaren erdira. Eta onec significazendu, nola gure Jaun Divinoaren Ama santissima librazeco egunetan zagolaric yuanzen Belengo Ciudadera.

Guero erratendu Sacerdotiac [251], Gloria in excelsis Deo. Onec significazendu, nola yayocen Jesu Christo gure Jauna Belengo Portalian Eguerri gavian, eta Ainguerauc cantatucioten Cantu sandu au. Erratendu Sacerdotiac Aldariaren erdian, señaletaco guciendako berdin yayocela Jaun Divino au. Sacerdotiac berac bacarric principiazendu Cantu sandu au, significazeco, Ainguera batec cantatuciela lenic Arzayey; guero seguidute Coruco Cantariac; [252] significazeco, Ainguerauc ere guero ala cantatuzutela denen artian.

Eta Sacerdotiaren lagunac, edo Ministroac, baitire Diaconoa, eta Subdiaconoa Gloria in excelsis Deo cantazen astendenian, gueldizendire Sacerdotiaren guibelian, significazeco, Arzayac onac, eta yustoac izanagatic, eta munduko Salvazalia mundua erredimizera etorricocelaco esperanzarequin vicibaldinbaciren ere, baño orduan [253], au da, Jaun Divino vra yayocenian, etzirela ortaz oroizen, eta etzutela pensazen, hequen gana Ainguerauc etorribiarzuela noticia dichosa arequin. Baño significazeco, Arzayac noticia

(3) "Lagunzaliequin" espero da.

alegre au adittuzuten bezala, beila yuancirela Belengo Portalera Jaun Divino vra visitazera, eta adorazera, yuatendire Aldarera Sacerdotiaren Ministroac, eta denen artian erratendute Cantu Sandu au.

[254] Eta ondar alderat acabazendenian Sacerdotia ciñazenbaita, eta eguitenbaitu Guruze bat, significazendu gure Jesus Divinoari yayo, ta zorzi egunen buruan, eguinbaicioten Circuncisioa deizenen Ceremonia Sandu bat, Antiguozco Leguiaren conforme, artan pasatuzuen oñacia, eta pena.

Guero erratendu Sacerdotiac: Dominus vobiscum. Eta significazendu, nolaco amo-riorequin, eta cariñoarequin [255] errecibittucituen gure Jesus Divinoac vra visitazera, eta adorazera Belengo Portalera etoriciren<sup>4</sup> iru Erreguiac.

Eta au erran, ta ondoan, yuatenbaita Sacerdotia Librura Oracioac erratera, significa-zendu gure Jesus Divinoac bere Ama Santismaren besotan Templo Sandura eguinzu-en biagia, Ama Santisima arc presentatzuenian Candelera egunarequin.

### **Epistola, eta berze cenbait gauza Evangelioa bitartian.**

Epistolac significazendu, [256] nola<sup>5</sup> Munduko Salvazalia Mundura manifestatu baño len, San Juan Bautista ibillicen bere Predicuac eguiten. Au da, yendiei avisua ematen elducela; eta ala prestazaitecela, ongi eta dignoqui iñalian Jaun Divino vra errecibize-co; artaraco vtzicetzatela vicioac, eta costumbre gaistoac, eta eguincetzatela obra onac.

Epistola cantatubiarduen Subdiaconoac arzendu Librua bi escuetan bere pechoaren contra; yuatenda Aldariaren erdira, eta an yarzenda belauriko.

[257] Onec significazendu, nola San Juan Bautista gure Jaungoicoac inspiraturic, yeusicen bere Desertu artatic Jordan cerizón Ugalde baten ondora, eta arara acudizen-baizuten yendiac, nola Ugalde aren bazterrian eguitencituen bere predicu Sanduac.

Eta Epistola cantazera duayena solamente aconpañazenbaitu Acolitoa deizenden la-gun batec, significazendu, aguítz yende gutic adittunaicitutzela Sandu Gloriosoaren Predicuac, Jesus Santisimoarenac [258] adizera yuatenciren yendien aldian. Eta Epistola cantazendu Subdiaconoac Aldarera beguira, significazeco, San Juan Bautistaren inten-cioa bere Predicuac eguitian cela, yendiac Jesu-Christo<sup>6</sup> gure Jauna gana convertizia.

Epistola cantazenden bitartian yendia egotenda yarriric, significazeco, nola Limbo-an egonduciren anima iustoac egonduciren dembora andian munduko Salvazaliaren esperoan; baña penaric, eta gloriaric [259] gabe.

Epistola acabatu, ta on<sup>7</sup>.

### **[260] Salvia.**

Jaungoicoac salvazaizala Erreguiña:  
Misericordiaren Ama:  
viciza, ta dulzura, gure esperanza:  
Jaungoicoac salvazaizala:  
zure gana deyez gaude:  
Evaren hume desterratu hoc:  
zu gana gaude suspirioz [261]:  
sentimentuz, eta nigarrez:  
nigarrezco Balle onetan:

(4) "etoriciren" izan behar luke.

(5) Orrialde honetatik hasi eta azkenekoraino gaizki daude zenbaturik orrialdeak: 256, etab. idatzi beha-rean, 156, etab. ipintzen du.

(6) Honela dago: *Jesu-Christo*, marratxo bat daukala erdian.

(7) Hemen bukatzen da atal honen gaia, ia orrialde osoa txuri gelditzen dela. Orriaren beste alderdian *Salvia* hasten da.

Ea bada Señora:  
 gure Abogada:  
 itzulitzatzu gu gana,  
 cere begui misericordioso oriec:  
 eta desterru onen ondoan,  
 eracutsizaguzu Jesus,  
 zure sabeleco fructu,  
 [262] bedeicatua.  
 O! Clementisima!  
 O! Piadosa!  
 O! Dulze Virgiña Maria!  
 Otoiz eguizu gu gatic:  
 Jaungoicoaren Ama Santa:  
 merecidezagun,  
 alcanzazia,  
 Jesu Christoren promesac.  
 Amen Jesus.

## II. NARBARTE II

### Acto Fedezcuac.

Nere Jaun, eta Jaungoicoa; nic siñestendut zure baitan. Nic siñestendut Aitaren, eta Semia, eta Espiritu Sanduaren baitan; iru Persona distinto eta Jaungoico bat eguiazcoa.

Nic siñestendut, Trintateco bigarren Persona Divina, baita Semia, eta deizenbaita Jesu Christo eguiñzela guizon Maria Santisimaren entrañetan Espiritu Sanduaren obraz, eta virtutez. Yayocela Virgiña Maria ganic. Pasatuzuela [2]<sup>2</sup> Pasio, eta erioze dolorosoa gu salvazia gatic: Illen artetic erresucitaturic, igancela Cerueta, eta etorricodela onen, eta gaistoen yuzgazera: Bacochari emanendiola bere obrac mereciduten bezala: Gais-toei Infernua, eta onei Ceruco Gloria.

Guisa berian siñestendut Jauna, Jesu Christo bera dagola Aldareco Sacramento Sanduan aiñ errealkqui, eta aiñ ciñezqui nola dagon Ceruan. Eta generalqui siñestentut Jauna firmequi Eliz Ama Sanduac eracustentigun Misterio guciac, cerengatic zuc ala [3] errevelatuzion.

### Acto Esperanzazcuac.

Nic esperazendut, Jauna, zure Misericordiaren baitan, barcatucotidazula niri nere becatuac, eguitendudalaric eguiazco penitencia. Guisa berian esperazendut, Jauna, emanendidazula ongi vizicero, eta ongi ilzecho gracia, eta berze munduan Gloria.

### Acto Caridadezcuac.

Nic maitazenaitut, [4] Jauna, gauza guciac baño gueyago, ceren zaren Jaungoico infinitoqui ona, eta maitagarria: eta naicinduzquet maitatu cere Ama Maria Santisimac, eta berze Ceruco Sanduac, eta Santac maitazenzaitutzten bezala. Alaber maitazentut, Jauna, nere burua bezala nere lagun proximo guciac; eta hequen artian nere etsayac erebai: denei deseyazentiet neretaco naitudan on guciac, cerengatic zuc ala manazen-baituzun.

Eta Fede, Esperanza, eta caridade ontan naidut vici eta ill, zuc disponizenduzun demboran. Amen.

**[5] Obra onen ofrecimentua.**

Nere Jaungoico Soberanoa. Nic ofrecientizut nere vici gucico obra onac, trabajiac, nequiac, penac, eta naigabe guciac, eta particularqui egun ontacuac, izandaitecen lembicoric zure honra, eta gloriaraco, eta nere animaren salvacionero.

Izandaitecen nere becatuen satisfaciota; baratzadatzun denac, eta idazun lagunza, eta gracia becatu mortalian erori gabe vicizeco eriozeco orduraño.

Artaz landara izandaitecen Purgatorioco animen [6] sufragiotan: baña particularqui nere obligaciozco animen favoretan.

Guisa berian ofrecientizut<sup>3</sup>, Jauna, eguitentudan obronac, eta pasazentudan trabajiac, edo izatentudan nequiac, iducazun mundu guciaz piedadia, eta misericordia; baña particularqui Erreinu ontaz: gauzac compondaitecen lenbait len, nola obequi conveniden zure honra, eta gloriaraco, eta animen salvacionero. Amen.

**[7] Preces pro quacumque tribulatione.**

Otoiz eguindezogun Christavac gure Jaungoicoari, iduquidezan gutaz piedadia, eta misericordia.

**Pater noster, ta Ave Maria.**

Otoiz eguindezogun, barcadetzala gure becatuac, ala andiac, nola chiquiac.

**Pater noster &a.<sup>4</sup>**

Otoiz eguindezogun digula baquia.

**Pater noster &a.**

[8] Otoiz eguindezogun, digula biardugun paciencia, eta conformidadia pasazentugun, eta pasadetzaquegun trabajuetan.

**Pater noster &a.**

Otoiz eguindezogun, ezgaizala castigatu gure becatuac mereciduten adiña.

**Pater noster &a.**

Otoiz eguindezogun Aita Sanduaren gatic; amparadezan, defendidezan, eta eman-dezon biarduen argutasuna, lagunza, eta gracia Christiandadia ongui governazeco.

**Pater noster &a.**

[9] Otoiz eguindezogun, digula biardugun valoria, edocein trabaju, edocein martirio pasazeco, dugun Fede Sandu au galdu baño lenago.

**Pater noster &a.**

Otoiz eguindezogun, lurreco fructuac ongui ecarridetzan, eta conservadetzan convenibada.

**Pater noster &a.**

Gucien gañian otoiz eguindezagun Purgatorioan penazen dauden Anima bedicatuengen gatic; gure Jaungoicoac eramandetzan lenbait len Ceruco Gloriara.

(1) Yayo hitzaren lehenbiziko hizkia eta hurrengo orrialdean, lehenengo paragrafoan, ageri den *illen* hitzarena berdin daude idatziak. Beraz, "Yayo" ea "*ilen*" ikusten ditugu.

(2) Eskuidatzian orrialde honek 33. zenbakia du.

(3) Orain *et* bikoitza erabiltzen du. Aurreko orrialdean, lehenbiziko paragrafoan, "ofrecientzut" idatzi du, *et* kontsonantea bikoitzu gabe.

(4) Beste liburuan bezala idazten da *&a.*

**Pater noster &a.****III. OIEREGI****Gure Jaun Soberanoa  
Aldarian manifesto dagonian,  
cantatudaitezquen versoac.**

Gure gusto, gure [13]<sup>1</sup> atseguiin,  
gure Jesus Maitia:  
    Cere Biotzeco suban  
    errezzazu guria<sup>2</sup>.  
Gure obenac, gure loyac  
lenic quendu biardira,  
vra zara, quenitzatzu,  
galdu gara berzela:  
badaquigu zaudela,  
gure amorez betia:  
    Cere biotzeco &a.  
    Pater noster ta Ave Maria.  
Etzeuden bacarric loyac  
gure biotz gaistoan;  
busti, ta vr eguiña dago  
becatuen cutsuan:  
garbia da, idor dago,  
Jesus ona [...].  
    Cere biotzeco (&a.)  
    Pater noster (&a.)  
Arguiz dago beteric,  
Jesus zure Biotza:  
illumbian guria,  
elurra bezaiñ otza:  
emen gatoz, aguerzazu,  
zu ganaco vidia.  
    Cere Biotzeco &a.  
    Pater noster &a.  
Noizpait, noizpait arquitudut  
bular ori idiquia!  
sartuconaiz, arnazazu  
Biotzian gucia:  
egon bear ezotedut  
nic or beti gordia?  
    Cere Biotzeco. &<sup>3</sup>  
    Pater noster &a.  
Zure subac, zure garrac  
auts eguiñen na[ute] ni  
[14] [...] [.....]  
[.....] vrzen beti.  
Jesus zu zaran ezquiero

gure animen labia,  
    Cere Biotzeco. &a.  
    Pater noster &a.  
Cer naiduzu? Certan zaude,  
Jesus ona Aldarian?  
Charqueriac arzendago  
amorezco lecuan!  
Charquerien pena naidu,  
naidu gure amoria.  
    Cere biotzeco. &a.  
    Pater noster. &a.  
Aranza zorrozac baicic,  
eztuzu nere escutic:  
nere culpen arantzequin  
dena zaude odolturic.  
Ah ni baldin banengo  
negar, damuz asia!  
    Cere Biotzeco &a.  
    Pater noster &a.  
Ez otedut maitatu biar  
Jesus zure Biotza!  
artu behar ez otedut  
zure nequen damua!  
Esque nator zabalzazu  
sar-videoeo Atia.  
    Cere Biotzeco &a.  
    Pater noster &a.  
Ongui pensazenbagueno,  
comecatzeracuan,  
nor daucagun, nor datorren  
Hostia sandu orretan!  
Oguia izandaiteque,  
baña Ceruco oguia.  
    Cere Biotzeco. &a.  
    Pater noster &a.  
Cerutic etorrizaigu  
sustentazen gaituena;  
esquerrac emanbiarrian,  
etzogula eman pena [15].  
Aingueruen oguia da  
animen yanaria.

(1) Aurreko orrialdeetan *Jesu Christoren Pasio Sandua versoan eta Becatu mortalaren gaistoa, eta... daude idatzirik.*

(2) Lehenbizi "errezzatu guria".

(3) Ez &a.

Cere biotzeco &a.  
Pater noster &a.  
Serafiñen amorioa  
biardugu deseatu,  
ta arequin biotz gucitic  
Jaun andi au maitatu.  
Arequin biztubaledi  
illa dugun Fedia!  
Cere Biotzeco &a.  
Pater noster &a.

### **Cristau Fiel gucia<sup>1</sup>**

Todo fiel Christiano<sup>2</sup>  
está muy obligado  
a tener devoción  
de todo corazón  
con la Santa Cruz  
de Christo nuestra luz,  
pues en ella  
quiso morir  
por nos redimir  
de nuestro pecado,  
y librarnos del enemigo malo.

Y por tanto  
te has de acostumbrar  
a signar, y santiguar,  
haciendo tres cruces.

La primera en la frente,  
porque nos libre Dios  
de los malos pensamientos.

La segunda en la boca,  
porque nos libre Dios  
de las malas palabras.

La tercera en los pechos,  
porque nos libre Dios  
de las malas obras,  
diciendo así:

Por la señal  
de la Santa Cruz,

(1) Izenburu hau guk asmatua da.

(2) Erdal testua guk hemendik hartua da: *Catecismo y exposición breve de la Doctrina Christiana compuesto por el P. Gerónimo de Ripalda*. Madrid “en la Imprenta de Villalpando Año 1803”.

Dagoen bezala transkribatu dugu, salbuespen bakarra azentuaren arloan egiten dugula. Azentu marka gaur egun erabiltzen den moduan jartzen da.

(3) Ez “*Christau*”.

(4) Lehenbizi “*Gurudea*”.

de nuestros enemigos  
librano, Señor,  
Dios nuestro.  
En el nombre del Padre,  
y del Hijo,  
y del Espíritu Santo. Amen.  
Cristau<sup>3</sup> Fiel gucia  
dago obligatua  
bioz gucitic  
devocio izatera  
Guruzia<sup>4</sup> gana;  
[....]<sup>5</sup>  
artan bada  
ilzen Jesus:  
e[redimizia gatic]  
gu becatutatic  
eta esai gaistotic.  
Argatic  
artu biarda / costumbre<sup>6</sup> ona,  
siñaziaz<sup>7</sup>, / eta santiguaziaz<sup>8</sup>  
eguitendirelaric / iru Guruze oso.  
Lembicicua / copetan  
Jaungoicoac libragaizan  
pensamentu gaisto gucietatic:  
Bigarrena [16] [laguan]  
[Jaungoicoac librlagaizan  
iz gaisto gucietatic.  
Irugarrena bularretan  
Jaungoicoac libragaizan  
[obra] ta deseo / gaisto gucietatic:  
erratiarequin<sup>10</sup>:  
Guruze sanduaren  
señaliagatic<sup>11</sup>,  
gure esayetatic  
libragaitzazu,  
gure Jaun ta Jaungoicoa;  
[Aitlaren,  
ta Semea[re]n<sup>12</sup>,  
ta Espiritu Sanduaren icenian<sup>13</sup>.  
Amen Yesus.

(5) Ezkerreko lau hitz horiek ez ditu itzuli.

(6) Barra hori guk ipinia da, adierazteko euskal itzulpena bi lerrotan dagoela banatua.

(7) Lehenbizi “siñazeaz”.

(8) Lehenbizi “santiguazeaz”.

(9) Narbarten auktitutako *Doctrina christianan aguan* ageri da.

(10) Lehenbizi “erratiarequin”.

(11) Lehenbizi “señaleagatic”.

(12) Hemen “Semeaaren” idatzi du eta ez du aldatu.

(13) Lehenbizi “icenean”.

**Misionisten Cantuac.***Elicera yuatiān.*

Becatari gaisoa,  
arren adizazu,  
Jauna ganaco asmoa  
bereala arzazu.  
Gucioc damu degu<sup>1</sup>,  
zu ofendituaz:  
bereala vztendugu  
gure becatua.  
[17] Baquiac escazera  
gaitu gu bigaldu,  
bere ardién deizera,  
ezditecen galdu.  
Ni naiz zuen Yabia,  
dio Jaungoicoac,  
Aita guztiz maitia,  
pare gabecoa.  
Nic eguinciñuztedan  
ezere eztican  
amatuciñuztedan  
biotz gucitican.

*Elicetic aterazian.*

Ama dolorezcoa,  
Virgiña María  
biotza amorezcoa  
duzu zuc guztia.  
Pena orien gatic  
gure Ama maitia,  
arren orai gu gatic  
vrriquizaitia.  
Amorioac zaitu  
penetan paratu,  
arec garaituzaitu,  
ta martirizatu.  
[Pena orien &a.]  
[.....]  
amol[....]  
zizquizun pl[....]  
idiqui beguiac.  
Pena orien &a.

Icusiric penazen  
Semiaren laztana,  
cizaizun erdiratu

- (1) Hemen "degu" irakurtzen dugu; baina bi  
lerro behetiago "dugu".
- (2) Papera hautsirik dago.
- (3) Falta dena *ona* liteke izan.
- (4) Falta dena *yarritic* izan liteke.
- (5) Falta dena ez dakigu zer izan litekeen.

biotz ori dena.

Pena orien &amp;a.

Guruzian yosiric  
zure Jesus [...]<sup>3</sup>  
an beguira y[....]<sup>4</sup>  
hai zure egon[....]<sup>5</sup>

Pena orien &[a].  
Jesus penen artia[n]  
martirizaturic,  
ta zu aren aurrian  
ecin lagunduric.

Pena orien &amp;a.

**Josefen atseguiñac<sup>1</sup>**

[18] [...]<sup>2</sup> atseguiñandia  
arzendut Josef garvia,  
ceren cenuen Esposa  
Jesusen Ama Maria.  
Ceren alegratucíñan  
yaquinducuenian,  
Espiritu Jauna gandic  
[Esplosac artuzuela,  
[bere] sabelian zuena:  
[arz]endut gozo andia,

Ceren cenuen &amp;a.

Pater noster ta Ave Maria.

Cer gozo bedeicatua  
Arzayac<sup>3</sup> emancizuten,  
noticiatubaicinduzten  
Gure Jesus yayocela.  
Ta agoz gañian cegola;  
arzendut gusto andia,  
Ceren &a. Pater noster &.

Norc erranendu Josef  
[zurel] contentu cerucua  
[.....]litil[.....]  
[19] Jesus [...]  
Cerutic nol[.....]  
arzendut placer and[ia,]  
Ceren cenuen &.

Zure bioza cegon  
dena gozoz beteric  
aditucuenetic,  
gure Jesusec biar[zuela]  
Gu gatic eman odlolak  
arzendut gusto a[ndia,]  
Ceren cenuen &.

(1) Izenburua guk asmatua da. Bestalde, orrialdearen goiko basterrean bi lerro daude idatzirik, irakurri ezin ditugunak.

(2) Papera hautsirik dago.

(3) Irakur liteke baita ere "Arzayec".

Cembañ consolu cenulen]  
eztut erranen Josef,  
icusiric cerorrec  
Idoloac lurrera,  
Christoc botacituela,  
arzendut gozo andia,  
Ceren &. Pater noster & [.]

Ainguerauc Cerutic  
avisatucinduzten,  
atrazeco Eguiptotic<sup>4</sup>  
Ama Semiac arturic  
[.....]  
[.....]  
[.....]

(4) Hola dio: "Eguitotic".

#### IV. HIZTEGIA

*Doctrina christianaaren explicacionea-*  
tik bildua.

##### **A**

ADIN (i.) 'edade'. *adin* 108, 3; *adñian* 97, 3.  
 ADITU (a.) 'entzun'. *adizen* 100, 5.  
 AGINDU (a.) 'hitz eman'. *aguindu* 92, 7.  
 AGITZ (ad.) 'arras, guztiz'. *Agitzun* co-  
mun 98, 4.  
 AGO (i.) 'aho'. *ago* 78, 4; *aguan* 37, 4.  
 AINGERU (i.) *Ainguerau* 83, 7.  
 AIZIN (i.) 'aitzin, aurre'. *aiztinean* 99, 5.  
 AKTO (i.) *acto Fedezcuac* 154, 2.  
 AL (i.) 'ahal'. *aliqueco lasterrena* 138, 5.  
 ALLEGATU (a.) 'heldu, iritsi'. *allegatu* 100, 5.  
 AMEKAGARREN (d.) *Amecagarreña* 171, 1.  
 ANDI (adj.) 'handi, haundi'. *andi* 143, 1.  
 ANIMA (i.) 'arima'. *anima* 57, 1.  
 ANITZ (d.) 'ainitz, asko'. *anitz aldiz* 156, 1; *aniztan* 166, 1.  
 ARAT (ad.) 'hara'. *arat* 177, 1.  
 ARTIKU (a.) 'aurkitu'. *arquizen* 95, 6.  
 ARRAIN (i.) 'arra'. *arrain gauza* 110, 1.  
 ARRAZOI (i.) 'arrazo(n)'. *usu arrazo-  
yozcora* 42, 2.  
 ARTIO (p.) 'arte'. *noiz artio...?* 108, 2;  
*purgatu artio* 179, 5.  
 ASKI (ad.) 'nahikoa'. *asqui du* 108, 4;  
*asqui da* 110, 1.  
 ASKO (d.) 'ainitz, anitz'. *Asko ocasioz* 119, 3; *asco aldetara* 119, 3; *berze asco  
Sanduac* (sic -duac) 157, 1.  
 ASPERTU (a.) 'nekatu, ahuldu'. *aspertu  
gabe* 77, 1.  
 ATERA (a.) 'atera; irten'. *atera* 129, 2;  
*aterazian* 40, 1.  
 AUNDI (adj.) 'handi, haundi'. *aundia-  
requin* 37, 4. Hau bakarrik aurkitu dugu,  
beste guztietan *andi* ageri delarik.  
 AZKEN (d.) 'atzen, hondar'. *azquen fi-  
nac* 'novissima' 177, 2; *Azquen Juicioco* 69, 5. Cf. ONDAR.

##### **B**

BAITA (i.) 'barren, barru'. *Jesu Christo-  
ren baitan* 61, 2; *aren baitan* 88, 1.  
 BAÑA (j.) 'ordea'. *baña* 55, 4.  
 1 BAÑO (j.) 'baino'. *baño* 69, 1. N.B.  
 Konparatiboetan.

2 BAÑO (j.) 'baina, ordea'. *baño* 147, 2.  
 N.B. Behin dago hola, besteetan *baña*.  
 BARBER (i.) 'sendakin, mediku'. *Medicu  
edo Barberac* 108, 3.  
 BARKAZIO (i.) 'barkamen'. *barcacio* 141, 1.  
 BARUTU (a.) 'barautu, barurtu\*. *Nola  
barutubiarda?* 108, 4.  
 BATAIO (i.) 'bateo, bateiu'. *Batayoan* 124, 1.  
 BATAIATU (a.) 'bateatu'. *Batayatu* 125, 4;  
*batayadezaque* 122, 3.  
 BAUTISMO (i.) 'bataio'. *Bautismoa* 116, 2.  
 BEDEIKATU (a.) 'bedeinkatu'. *bedeica-  
zen* 41, 7.  
 BEDIKATU (adj.) 'bedeinkatu'. *ogui be-  
dicatua* 145; *vr bedicatua* 145.  
 BEDIZIO (i.) 'bendizio'. *bedicio* 156, 1.  
 BEILA (ad.) 'berehalia'. *beila* 142, 3.  
 BEIÑKPEIÑ (ad.) 'behintzat'. *Beiñkpeiñ* 96, 5; *beñicpeiñ* 113, 4.  
 BEITI (ad.) 'beheiti, behera'. *andic bei-  
ti* 94, 7.  
 BEKATU (i.) 'pekatu'. *becatu* 91, 6.  
 BELDURTASUN (i.) 'beldur, ikara'. *veldur-  
tasunaren* 170, 1.  
 BERZE (d.) 'beste'. *berze* 62, 4.  
 BEZALA (j.) 'legez'. *bezala* 48, 2.  
 BI (d.) 'bida'. *Bi modutara* 75, 5; *Bi  
ordutara* 94, 7; *vi aldiz* 137, 1; *Bietara* 'bi  
modutara' 130, 5; *Bietan* 151, 3.  
 BIDA (d.) 'bi'. *Bida* 59, 3; etab.  
 BIARRI (i.) 'belarri, beharri'. *biarriaz  
adizia* 161, 3.  
 BIGALDU (a.) 'bidali'. *bigalzen* 119, 2.  
 BIRAMON (i.) 'hurrengo egun'. *viramo-  
nian* 150, 4.  
 BIRJINA (i.) *Ama Virgina* 129, 2; *Ama  
virginaren* 56, 4. Cf. BIRJINA.  
 BIRJINIDADE (i.) 'birjintasun'. *Virginida-  
dia* 63, 1.  
 BIRJINA (i.) *Ama Virgina* 84, 4; *Ama  
virgiñaren* 56, 8; etab.  
 BITARTEKO (i.) 'artekari, ararteko'. *bi-  
tarceo* 129, 2; *bitartecoei* 85, 4.  
 BORZ (d.) 'bost'. *vorz* 104, 3; *vorzetatic*  
128, 1.  
 BORTZGARREN (d.) 'bostgarren'. *vorzga-  
rrena* 81, 3; etab.; *Borzgarrena* 111, 1;  
etab. N.B. Bi aldiz "Vortzgarrena" 112, 1;  
116, 2.

**D**

- DAMUTASUN (i.) 'damu,dolu'. *damutasun* 142, 6; *Berzeren onaren damutasun bat* 168, 5; *doloria edo damutasuna* 134, 2.
- DEBEKATU (a.) 'eragotzi'. *devecazen* 104, 1.
- DESEATU (a.) 'nahi izan'. *deseazen* 98, 2.
- DESEIATU (a.) 'nahi izan'. *deseyatuz* 99, 1.
- DESEO (i.) 'nahi'. *deseio* 38, 5; *deseyo* 104, 2; *deseyoz* 97, 7.
- DEUS (io.) 'ezer'. *deusetatic* 'ex nihilo' 53, 5; 57, 1.
- DONU (i.) 'dohain, bertute'. *Donuac 'dona'* 169, 6; *donua* 169, 7. N.B. Erabilten du baita ere *don*: *Donen* 174, 2; *donez* 64, 7.

**E**

- EBATSI (a.) 'ostu, lapurtu'. *ebatsi* 101, 3.
- EGIA (i.) *eguia gabe* 90, 7; 90, 8; *egui eta Fedezcoa* 51, 4.
- EGON (a.) *egon* 71, 6; etab. Cf. EGONDU.
- EGONDU (a.) *egondu* 67, 3.
- EGUN (ad.) 'gaur'. *egun ta seculaco* 'beitirako' 178, 3; etab.
- EMENDATU (a.) 'zentzatu, zuzendu'. *emendazeco* 134, 2. Cf. "enmendazeco" 136, 1.
- ENTZUN (a.) 'entzun'. *enzun biarda Meza* 106, 2.
- ERAKUTSI (a.) 'ikus erazi'. *eracutsi* 97, 1.
- ERAUKI (a.) *Iñori falso testimonioric erauqui eztezogula* 102, 5.
- ERI (i.) 'gaiso'. *eri peligrozcoa* 158, 3.
- ERIOZE (i.) 'herio, balbe'. *Eriozia* 177, 5.
- ERRAN (a.) 'esan'. *erran* 63, 2.
- ERREIÑU (i.) *erreinua* 172, 1; *erreinua* 79, 6.
- ESKUIN (i.) 'eskuma'. *Escuñeco escuco* 37, 4; *Escuñeco bi biazez* 39, 1.
- EZIN (a.) 'etzin, etzan'. *guazera ezitian* 39, 3.

**F**

- FRUKTU (i.) 'fruitu'. *Fructuac* 170, 2.

**G**

- GAISTO (adj.) 'gaizto'. *gaistoetan* 82, 3.
- GALDE EGIN (a.) 'galdetu, itaundu'. *Galde eguiten* 35, 1.
- GALDETU (a.) 'galde egin'. *galdezia* 110, 1.

GISA (i.) 'modu, era'. *beren guisa* 96, 1; *guisa berian* 96, 3; *Cer guisa...?* 140, 2; *guisaz* 101, 7.

GOGO (i.) 'nahi'. *eguin gogo duena* 91, 7.

GUARDIAGO (adj.) 'zaintzaile'. *Ainguero Guardiacoa* 86, 5.

GUAZE (i.) 'ohatze, ohe'. *guazera ezitian* 39, 3; *guazetic yaiquizian* 40, 1.

GURATSO (i.) 'guraso, aita eta ama'. *Guratsoac* 95, 2.

GUTI (d.) 'gutxi'. *guti gora bera* 130, 1; *guttiago* 134, 1.

GUZITZ (ad.) 'arras, agitz'. *Guztiz Poderoso* 53, 2.

GUZI (d.) 'guzti'. *gucietatic* 38, 1; *guciak* 53, 5.

**I - J**

IAIKI (a.) 'jaiki'. *guazetic yaiquizian* 40, 1.

IAIO (a.) 'jaio, sortu'. *yayo* 62, 5; *yayozen* 123, 3. Cf. JAIO.

JAIO (a.) 'sortu'. *jayocen* 46, 5.

JAKINSU (adj.) 'aditu, ikasi, eskolatu'. *yaquinsua* 181.

IAN (a.) 'jan'. *yan eta edan* 150, 4.

ΙΑΡΡΙ (a.) 'kokatu; eseri'. *yarrigaitecen* 124, 1; *yarricoda* 124, 6; *yarriric* 'sedens' 68, 3.

JAUNGOIKO (i.) 'Jainko, Jinko'. *Jaungoico* 37, 4; etab.

IEUSI (a.) 'jaitsi'. *Yeusi* 66, 2.

IGAN (a.) 'igo'. *Igancen* 67, 6; *ygaten* 46, 7.

IÑOR (io.) 'inor'. *Iñor ill eztezagula* 97, 5; *iñori* 97, 7.

IUAN (a.) 'joan'. *yuanen* 178, 3; *yuaten* 113, 4.

IUNTA (i.) 'junta, batzarre'. *yunta, eta Congregacioa* 72, 3.

IUNTATU (a.) 'bildu'. *yuntatu* 177, 9.

IUZGATU (a.) 'epaitu'. *yuzgazera* 70, 1.

IZAN (a.) *izandadiela* 83, 3; *izandaitzque* 99, 3. Cf. IZANDU.

IZANDU (a.) *izandu* 56, 7; 64, 6; 113, 4. Orrialde hauetan bakartik.

**K**

KARGUDUN (i.) 'arduradun, agintari'. *Cargudunac* 96, 3.

KENDU (a.) 'gabetu'. *quenzia* 101, 5; *quenzen* 103, 3.

KOMEKATU (a.) 'komikatu, komuniatu'. *comecatu* 105, 2.

KONFESORE (i.) 'aitorle'. *confesore* 109, 1.  
KORROTO (i.) 'gorroto'. *odioa, edo corrotoa* 98, 2.

KRISTAU (i.) 'kristinau, giristino'. *Christau* 71, 6; *Christava* 35, 1.

KUASIK (ad.) 'ia'. *quasic* 174, 6.

## L

LANDARA (ad.) 'gainera'. *Artaz landara* 114, 1; *penitenciaz landarā* 139, 3.

LEITU (a.) 'irakurri'. *leittu* 181.

LEN-BAIT-LEN (ad.) 'hainbat lasterren'. *lenbait len* 102, 3.

LIBRU (i.) 'liburu'. *libru* 89, 5.

LOGRATU (a.) 'lortu'. *logratu* 154, 1.

LOTSA (i.) 'lotxa, ahalke'. *lotsaz* 134, 2.

## M

MATTATU (a.) 'onetsi, maite ukana'. *maitadezagula* 87, 2. Cf. ONETSI, noizean behin ageri dena.

MAIZ (ad.) 'sarri, usu'. *maiz* 148, 1.

MANATU (a.) 'agindu'. *manazen* 93, 2.

MANDAMENTU (i.) 'manamendu, agindu'.

*Mandamentu* 44, 3; etab.

MEREZI (a.) 'mercididutenian'. *97, 1; merreci* 132, 1.

MERSEDE (i.) 'mesede, fabore'. *favoriac, eta mersediac* 137, 1.

MINGAÑ (i.) 'mihī'. *Mingañarequin* 76, 4.

MINZATU (a.) 'hitz egin, berba egin'. *minzazenzara* 77, 2.

MODU (i.) 'gisa, era'. *moduric obrenian* 102, 3.

## N

NIGAR (i.) 'negar'. *nigar* 172, 3.

NIRABE (i.) 'nerabe, mirabe'. *Nirabiac* 96, 3.

## O

OBEREN/OBREN (adj.) 'hoberen'. *Ceiñ da oberena...?* 132, 2; *moduric obrenian* 102, 3. N.B. Ia beti "obren".

OLIADURA (i.) 'oliadura, gantzudura'. *Oliadura* 116, 2; *Oliaduraren Sacramentua* 157, 1.

ONDAR (d.) 'azken'. *ondarreco Confestotic* 129, 2; *ondarrtan* 155, 1.

ONETSI (a.) 'maitatu'. *onetsi, eta maitadezagula* 87, 2.

ONETSITU (a.) 'onetsi'. *onetsizia* 87, 5. N.B. "onetsitu" tilk ote?

ONGI (ad.) 'ondo, ontsa'. *ongui* 88, 3.

HONRA (i.) 'ondra, ohore'. *honra* 103, 4.

ORANIK (ad.) 'oraindik'. *oranīc gueyago* 154, 1.

ORZI (a.) 'ehortzi, hobiratu'. *orzizuten* 65, 10.

OTOIZ EGIN (a.) 'otoiztu, errezatu'. *otoiz eguitia* 74, 5.

OTORDU (i.) 'jatordu'. *otordu batian* 110, 1.

## P

PASIONE (i.) 'irrika, desira'. *Beren pasione gucietan* 175, 7.

PERSONA (i.) 'lagun'. *Persona* 50, 3.

PODORE (i.) 'botere, ahaltasun'. *podo-riarequin* 53, 3.

PREDIKU (i.) 'sermoi'. *Predicu* 119, 3.

PRUDENT (adj.) 'zuhur, zogi'. *prudenta* 181.

## S

SAKRAMENTU (i.) *Sacramento* 45, 1; etab.

SALBAZALE (i.) *Salvazalia* 54, 3; 64, 1.

SANDU (adj.) 'santu, saindu'. *Elizama Sandu católicoac* 47, 7; *edoceiñ Sandu, eta Santac* 69, 1.

SERBIZATU (a.) 'zerbitzatu'. *servizaden-zaaren Divina Magestadia* 54, 2.

SIÑESI (a.) 'sinetsi'. *cer siñesi biardu-gun* 42, 5; *siñesten* 157, 1.

SIÑESTATU (a.) 'sinetsi'. *siñestazia* 46, 4; etab. luze bat.

SIÑEZKI (ad.) 'egiaz, benetan'. *erreala-qu eta siñezqui* 151, 1; *erreala eta siñez-qui* 152, 1. Cf. ZÑEZ.

SOFRITU (a.) 'jasan, nozitu'. *sofrizia* 111, 1.

SOÑ (i.) 'soin, umerus'. *ezquerreco so-netic escuñecorao* 39, 1.

SORTU (a.) 'izanerazi'. *vicio hetatic sor-zendiren zañac, itturriac, eta buruac be-zala* 166, 2.

## T

TANTA (i.) 'txorta'. *vr tanta* 152, 3.

TRABAJATU (a.) 'saiatu, ahalegindu'. *tra-bajazen eztenac* 94, 5.

TRINTATE (i.) 'trinitate'. *Trintate* 39, 1.

TXIKI (adj.) 'txipi'. *hostia chiquibatian* 151, 2.

TXOLL (ad.) 'arras, guztiz'. *choll gal-duac* 115, 1.

**TXORTA** (i.) 'tanta, pixka'. *odol chorta* 57, 1; *ardo chorta* 152, 3.

**U**

**URRIKIMENTU** (i.) 'damu'. *Damu, eta urriquimentu* 130, 3.

**USMATU** (a.) 'usaina hartu'. *sudurraz vsmazia* 161, 3.

**ADIZKIAK**

*Doctrina christianaren explicacioneatik* bilduak.

**B**

**BEDI** 'bedi'. *bedi* 79, 2; 80, 4; 109, 1.

**BEZA** 'beza'. *beza* 109, 1.

**D**

**DA** 'da'. *da* 36, 2; *den* 36, 5; *delaric* 52, 3; *dela... dela* 53, 6.

**DADIEN** 'dadin'. *dadien* 148, 3; *dadiela* 79, 4; 83, 3.

**DAITEKE** 'daiteke'. *daiteque* 109, 4; 148, 1; *eztaiteque* 110, 1; *daitequena* 49, 3.

**DAITEZEN** 'daitezen'. *daitecen* 159, 3; *eztaitecela* 93, 3.

**DAITEZKE** 'daitezke'. *daitezque* 99, 3; 156, 1.

1 **DETZAGUN** 'ditzagun'. *detzagula* 94, 3; 95, 2.

2 **DETZAGUN** 'diezazkigun'. *Barcode-tzagula Jaungoicoac guri gueren beca-tuac* 81, 6.

**DETZAKE** 'ditzake'. *detzaque* 132, 5; 154, 2.

**DETZAKEGU** 'ditzakegu'. *detzaquegu* 139, 3; 141, 4 (bi aldiz).

**DETZAN** 'ditzan', *detzala* 146, 3.

**DETZATEN** 'ditzaten'. *acidetzatzen* 159, 3.

1 **DEZAGUN** 'dezagun'. *dezagun* 148, 3; *dezagula* 80, 6; 87, 2; *eztezagula* 90, 5; 97, 5; 100, 1.

2 **DEZAGUN** 'diezagun'. *emandezagula (Jaungoicoac guri)* 80, 2; 81, 2.

**DEZAGUZU** 'iezaguzu'. *dezaguzu* 80, 8.

**DEZAKE** 'dezake'. *dezaque* 122, 3; 135, 4; 137, 147, 4; *dezaquen* 183, 2; 184, 1.

**DEZAKEGU** 'dezakegu'. *eztezaquegu* 164, 9.

**DEZAKETE** 'dezakete'. *dezaqueten* 95, 6.

**DEZAN** 'dezan'. *dezan* 54, 2 (bi aldiz); *dezala* 80, 2; *Ezbezala* 150, 4.

**Z**

**ZAÑ** (i.) 'sustrai, erro'. *zañac* 166, 1.

**ZIÑEZ** (ad.) 'egiaz, benetan'. *ciñez, eta biozetic* 156, 3.

**ZIÑEZKO** (adj.) 'egiazko, benetako'. *ziñezko doloria edo damutasuna* 134, 2.

**DEZOGUN** 'diezaiogun'. *dezogun* 85, 1; *eztezogula* 101, 3; 102, 5.

**DEZON** 'diezaion'. *dezola* 137.

**DIE** 'diete'. *die* 97, 1 (bi aldiz); *dienac* 96, 1.

**DIGU** 'digu'. *baitigu* 47, 5; *digun* 94, 1; *digunian* 119, 3.

**DIGUTE** 'digute'. *digutenei* 81, 6.

1 **DIO** 'dio'. *dio* 138, 5 (bi aldiz); *dion* 55, 2; 73, 3; *diola* 181. Eta gehiago.

2 **DIO** 'die'. *dio* 70, 4; 71, 1; *dió* (sic -ó) 108, 2.

**DIOGU** 'diogu'. *diogula* 146, 3.

**DIOTE** 'diete'. *baitiote* 99, 5; *eztioten* 95, 6.

**DIOZU** 'diozu'. *diozu* 83, 4.

**DIRE** 'dira'. *dire* 37, 1; *etab.*; *diren* 76, 4; *direla* 121, 1; *etab.*

1 **DUGU** 'dugu'. *dugu* 39, 2; *dugun* 42, 5; *dugula* 177, 7; *dugularic* 39, 1.

2 **DUGU** 'diegu'. *Eguinbiardugu otoiz Aingueruei...?* 85, 3.

**DU** 'du'. *du* 35, 3; *baitu* 53, 3; *duen* 35, 6; *duela* 68, 4.

**DUT** 'dut'. *dut* 35, 1.

**DUTE** 'dute'. *dute* 95, 5; *duten* 80, 6;  *dutela* 71, 6.

**DUZU** 'duzu'. *duzu* 35, 5; 146, 2; *du-zunian* 41, 6.

**G**

**GAITEZEN** 'gaiteten'. *gaitecen* 84, 9; 124, 1; *gaitecela* 100, 3.

**GAITU** 'gaitu'. *gaittu* 87, 7.

**GAITUZTE** 'gaituzte'. *gaituzten* 40, 3.

**GAITZAN** 'gaitzan'. *gaitzan* 37, 6; *gai-tzala* 82, 3; 82, 7; *gaizan* 38, 3; 38, 5; *gai-zala* 177, 1.

**GAITZATZU** 'gaitzazu'. *gaitzatzu* 82, 5; *Ezgaitzatzula* 81, 8.

**GARA** 'gara'. *gara* 117, 3; 123, 3; *gar-laric* 37, 4; 121, 3.

1 **GENUEN** 'genuen'. *guenuen* 124, 1.

2 GENUEN 'gintuen'. *guenuen* 36, 5. Cf. *GIÑUEN*.

GENUKE 'genuke'. *ezguenueque* 118, 3.

GIÑUEN 'gintuen'. *guitñuen* 64, 2. Cf. 2 *GENUEN*.

## I

IZKIGUZU 'iezazkiguzu'. *Barcaizquigu-zu* 81, 4.

## L

LIZEKE 'litzateke'. *lizeque* 142, 4.

## T

• TIEGU 'dizkiegu'. *tiegun* 81, 4.

TIGU 'dizkigu'. *tigun* 118, 3; 162, 6.

TIO 'dizkio'. *tio* 155, 1.

1 TIOGU 'dizkiogu'. *tiogun* 139, 3.

2 TIOGU 'dizkiegu'. *tiogun* 81, 6.

TU 'ditu'. *tu* 42, 2; 52, 4; 114, 1; *ttu* 89, 5; 94, 4; 95, 3; *battu* 179, 3; *tuenac* 47, 6; *ttuenac* 47, 7. Gehiago erabiltzen du *t*- bat-karra *tt*- bikoitza baino: 21 bat aldiz *t*- eta 12 bat aldiz *tt*, oker ez bagaude.

TUGU 'ditugu'. *baytugu* 118, 3; *tugu-nian* 146, 3; *ttugun* 70, 3; *tugularic* 142, 2.

TUZTE 'dituzte'. *ttuzte* 96, 4; 97, 1 (hiru aldiz); 107, 5; *tuzten* 113, 2; *ttuzten* 96, 3; 107, 7; *ttuztenac* 100, 5 (hiru aldiz); 101, 1; *ezttuztenac* 95, 6; *ttuztenian* 99, 5.

## ADIZKI TRINKOAK

### B

BETOR 'betor'. *Betor* 79, 6.

### D

DAGO 'dago'. *dago* 77, 4; 84, 8; 92, 6; *dagon* 73, 3; *dagolaric* 91, 1.

DAIZO 'deritzo'. *daizo* 58, 4; 65, 3.

DAKI 'daki'. *daquielaric* 90, 9; *ezta-quienac* 89, 5; *eztaquienari* 110, 4.

DAKIGU 'dakigu'. *eztaquigula* 177, 7.

DAKIZKI 'dakizki'. *eztaquizquierac* 88, 3.

DAKIZKIGU 'dakizkigu'. *Daquizqui-gularic* 43, 3; 43, 5; 44, 3; 44, 5.

DAUDE 'daude'. *daude* 96, 3; *dauen* 48, 2; 141, 4; *dauenac* 85, 6; 176, 4.

DAUKA 'dauka'. *dauca* 83, 9.

DAUZKI 'dauzka'. *dauzqui* 61, 1; 126, 6; *baitauzqui* 78, 6; *dauzquier* 134, 1;

### Z

ZAIE 'zaie'. *etzaye* 166, 2; *zayen* 97, 1.

ZAIO 'zaio'. *zayo* 98, 3; 113, 4, 114, 1; 122, 2; 142, 3; etab.; *zayon* 138, 4; *zayolaric* 146, 2.

ZAITE 'zakizkio'. *encomendazaite* ari 86, 6.

ZAITUT 'zaitut'. *zaitut* 41, 7; *zayutut* 123, 1.

ZAITUZTE 'zaituzte'. *zaituzten* (*haiek zu*) 157, 1.

ZAIZKIO 'zaizkio'. *zaizquiero* 114, 1.

ZARA 'zara'. *zara* 35, 1; 37, 5; 84, 2; *zarela* 157, 1.

ZEN 'zen'. *cen* 65, 1; *zen* 56, 3; etab.; *cela* 62, 2.

ZENUEN 'zenuen'. *cenuen* 42, 1; 46, 5.

ZIGUN 'zigun'. *emancigun* 162, 5; 162, 7; 163, 2.

ZINDUZKET 'zintuzket'. *naicinduzquet* 157, 1.

ZION 'zion'. *cion* 47, 5.

ZIREN 'ziren'. *cirelaric* 67, 2.

ZITIGUN 'zizkigun'. *emancittigun* 161, 4.

ZITUEN 'zituén'. *zituén* 41, 5; *cituen* 53, 5; 57, 1; *cituen* 85, 7; *cituenac* 117, 1.

ZITUZTEN 'zituzten'. *cituzten* 70, 7; *etitzuzten* 71, 4.

ZUEN 'zuen'. *zuen* 35, 6; 45, 3; 53, 6; 74, 2.

ZUTEN 'zuten'. *zuten* 65, 10.

### G

GAUDE 'gaude'. *gauden* 80, 6.

### I

IDUKIYOZU 'edukiozu'. *iduquiyozu* devocio *andia* 86, 6. Adizki trinkoa ote?

### Z

ZAUDE 'zaude'. *zaudena* 82, 8.

ZEUDEN 'zeuden'. *ceuden* 66, 2.

